

# Arrasate Press

ARRASATE / Egubakoitza / 2005eko uztailaren 1a / 722. zenbakia

SUA/ Udala auzoan sutea izan da

## Bi hektarea baino gehiago erre dira Udala auzoan izandako sutearen ondorioz

UBANE MADERA

Astelehen arratsaldean piztu zen sua Udalan. Berehala iritsi ziren suhiltzaileak, eta handiena egunean bertan emendatu bazuten ere, eguazten goizera arte inguru guztia zaintzen ibili behar izan zuten. Oraindik ez dute argitu zerk eraginda piztu zen sutea.

Artadi bat eta 40 urteko pinudia erre dira Udala auzoan, guztira, bi hektarea mendi baino gehiago. Leintz ibarreko basozain Maitane Garmendiak adierazi digunez, galera garrantzitsua da; artadiari dagokionez, artea berez zuhaitz baliotsua delako; eta pinudiari dagokionez, dagoeneko 40 urte zituelako. Hori bai, aipatu beharra dago, baita ere, ez zela ez etxerik erre ezta zauriturik izan. Eta hori ere oso garrantzitsua da.

### ASTELEHENETIK EGUAZTENERA

Astelehen arratsaldean piztu zen sua Udako Zaatza baserri inguruan. Segituan hartu zuten abisua suhiltzaileek eta bertaratu egin ziren. Kamioi bakarria iritsi zen, bestea Bergaran sortu zen sute txiki bat emendatzen zebilen-eta. Gauzak horrela, ordubetera-edo, errefortzuei abisatu behar izan zieten, eta, besteak beste, Aramaioko eta Oñatiko basozainak eta beste bi kamioi zisterna igo ziren, tartean, Arrasateko Udalaren kamioi bat. Haiei laguntzen



DEIANE ARRIETA

Martitzen arratsaldean oraindik ere ura botatzen ibili ziren basozainak, garrak ez zitezen berpiztu.

Udalako auzotarrak ibili ziren jardun eta jardun. Guztira, 20 bat lagun ibili ziren sua emendatzen, eta handiena menderatzea lortu zuten. 23:30ean utzi

zioten lanari, baina suhiltzaileek 00:00ak aldera bueltatu egin behar izan zuten, haizeak garrak berpiztu egiten zituen-eta. 04:00ak arte jardun zuten

lanean. Eta Maitane Garmendia basozainak jakinarazi digunez, hurrengo egunetan ingurua zaintzen ibili behar izan zuten, eguazten goizera arte. Kontatu

digu eguazten goizean oraindik ere enborrei kea zeriela, nahiz eta ordurako arriskurik handiena desagertu izan, batez ere haizea nabarmen moteldu zelako.

### TXINPARTAK EDO GIZAKIAK ERAGINDA

Basozainak jakinarazi digunez, teknikariek oraindik ez dute argi zerk eragin zuen sutea. Izan ere, batzuek uste dute haizearekin bi kablek elkarren kontra jo zutela, horrek txinparta bat eragin zuela eta haren ondorioz piztu zela sua.

Beste batzuek, aldiz, diote sua errepide bazterretik gertu sortu zela, ez kableen azpian, eta horrek erakusten duela norbait botatako zigarrokin edo kristalezko botila edo halako batek eragin zuela.

Horri gehitu behar zaio, jakina, azken egunotan bero izugarria egin duela, hego-haize zakarra ibili dela eta mendiak-eta oso siku daudela.

### KONTUZ IBILI BEHAR

Gauzak horrela, mendi inguruan ibiliz gero, komeni da benetan zaintzea gure jarrera eta sua eragin dezaketen elementuekin-eta kontu handiarekin ibiltzea. Astelehenean argi ikusi genuen zein bizkor zabal daitekeen sua elementu guztiak bere alde dituen; eta suak bere atzean uzten duen paisaia benetan triste da, eta zeresanik ez suak sortzen duen arriskua benetan handia eta beldurgarria dela.

- Merkatuko lehen markak
- Mota askotako estiloak
- Gremioen koordinazioa

PROIEKTUA - DEKORAZIOA  
**Ipar**  
projects  
SUKALDEAK-BAINUAK-ZERAMIKA  
Telleria 23, D5 pabilioia.  
**Labegarieta Industrialdea BERGARA.**  
Tel.: 943 76 98 30. Faxa: 943 76 52 44.





ELKARTASUNA/ HUHEZIKoak Guatemalako Santa Maria Tzejan

# Dirua batzen dabilta, liburutegi bat eraikitzeko

UBANE MADERA

**HUHEZIKo zenbait irakasle dirua batzen dabilta Guatemalako. Iparraldeko indigenen komunitate batean liburutegia egitea da haien asmoa. Dirua batzeko Kutxak Ibai Arte eta Aretxarteko saltokietan daude.**

Joan den urtarrilean eta otsailan, HUHEZIKo zenbait irakasle Guatemalako Santa Maria Tzejan komunitatean izan ziren,

indigenekin. Hango haur eskolan praktikak egin zituzten. Eta hona bueltatu baino lehen, hara itzultzeko konpromisoa hartu zuten; baina ez praktikak egiteko, han liburutegi bat eraikitzeko proiektu bat egiteko baizik. Eta orain horixe egiteko asmoa dute. Horretarako, orain dela bi aste kutxak ipini zituzten Arrasateko Ibai Arte elkartearen eta Aretxabaletako Aretxarte elkartearen baitan dauden saltokietan. Eta irailaren 12ra arte sal-

tokietan utziko dituzte, jendearen ekarpenak batzen.

## ESKERRAK, GUZTIEI

Gero, irailaren 19an hartuko dute Guatemalako bidea. Eta liburutegiaren proiektua abiaraziko dute.

Edozelan ere, oraingoz jaso duten laguntzarengatik eskerrak eman gura dizkiete aipatutako saltokien elkarteei eta diru-ekarpenak egin dituzten eta egingo dituzten herritarrei.

## Bost egunez Llanesera, Harremani esker

Elkartasun Egunean Harremanen tonbolan bidaia bat zozkatzeko txartelak saldu zituzten. Orain jakinarazi digute 1.181 zenbakia izan dela irabazlea eta Maria Asun Ibabe dela zenbakiaren jabea (argazkiak erakusten duen moduan). Horrenbestez, hark irabazi du Eroski Bidaiek emandako Llanesera bost eguneko bidaia.

Bide batez, Harremanekoek eskerrak eman gura dizkiete tonbolan txartelak erosi dituzten guztiei. Izan ere, haiek emandako dirua Indiara bideratuko dute, kalean utzitako edo familia oso pobreetako neskatilak hartzen dituen umezurztegi batera. /U.M.

## LABUR

### Harrobien kontrako bi ibilaldi egingo dituzte bihar; Bai Udalatx! taldeak deituta

Ibilaldi luzea egin gura duenak 08:30ean du hitzordua, Arbolapetan. Handik hasita, Kontzezino, Udala, Gongeta eta Santa Luziatik buelta egingo dute, Kanpanzarreraino.

Ibilaldi laburra egin gura duenak, berriz, 10:00etan du hitzordua. Kasu horretan ere,

Arbolapetatik aterako dira eta San Balerion zehar Kanpanzarerra iritsiko dira. Gero, Kanpanzarren, 13:00etan beste hitzordu bat dute: jatetxearen ondoan, Udalatxan egin gura duten proiektuaren kontrako protesta egingo dute. Herritar guztiei parte hartzeko dei egiten diete.

### Seberreko zuhaitzak zaindu egingo dituzte


Ibilgailuen maniobrek eraginda, Seberren dauden hiru zuhaitzek enborraren azalean kalteak jasan dituzte. Horrez gainera, zenbaitek enborraren azaletik tira egin die zuhaitzei. Hori dela eta, Udalak erabaki du neurriak hartuko dituela zuhaitz haiek bizirik edukitzeko.

# UGARTE

## ARROZTEGIA-ALTZARIAK



- Arotz lanak orokorrean
- Horma armairuak
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak



**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea • BERGARA  
Tel.: 943 03 46 30

**ERAKUSKETA ETA TAILERRA**  
San Juan 1A • BERGARA  
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

# PSE-EEK uste du udal gobernuak prebarikazioa egin ahal izan duela

U.M.

Oposizioak salatu zuen udal gobernuak ilun jokatzeko duela eta ez dituela gauzak argitasun nahikoarekin azaltzen. PSE-EE urrunago joan zen eta prebarikazioa egiteaz akusatatu zuen. Inazio Lakuntza alkateak, berriz, adierazi zuen ez duela uste prebarikazioa egin dutenik.

Kultura etxearen gaineko lanen kontura hasi zuten eztabaida. Hain justu ere, kultura etxean egiten dabilen argizuloaren kontura. PPko ordezkari Itziar Lamarainek zein PSE-EEko Paco Gartzia salatu zuten kultura etxean argizuloa egiten dabilzala legeak exijitzen duen bideari jarraitu barik; besteak beste. PPko bozeramaileak zera esan zuen: "Larria iruditzen zait norbaiti gustatu egin zaio-lako, beste barik, argizulo bat erakitzea". Gaineratu zuen berari inork ez diola horren gaineko informaziorik eman eta gauzak ezkutatzeko ez dela legezkoa. "Eman dizkidaten erantzunak ez dira batera zehatzak. Argizuloa eginda dago eta ez Hirigintzak ezta osoko bilkurak, inork ez du onartu hori". Besteak beste, zera ere salatu zuen: "Gauzak edozein modutan egiten dira udaletxe honetan".

PSE-EEko Paco Gartzia urrunago joan zen eta akaso prebarikazio delitua egin dutela gaineratu zuen: "Proiektua aldatu egin dute baina aldaketa ez dute osoko bilkurara ekarri eta argizuloaren lanak bukatzeaz daude. Aldaketa horrek aurrekontua milioi bat euro handitzea ekar dezake (...). Beste behin, zerbait aldatu dute osoko bilkuraren legezko onespen barik. Hori esanda, prebarikazio berba erabili dugu; izan ere, esku artean ditugun datuak ikusita, gure zerbitzu juridikoek esan digute posible dela prebarikazioa gertatu izatea (...). Alkateari informazioa idatzita ematea eskatu diogu; eskatuko ditugu, baita ere, onarpen barik lanak egiten dabilzala egiaztatzeko argazki frogak eta froga dokumentalak. Zerbitzu juridikoetara eramango ditugu eta beharrezkoa bada, gero epaitegiara joko dugu".



Teilatuko obrak aprobetxatu eta argizuloa egiten dabilza kultura etxean.

**PSE-EE:**  
"Informazioa gure zerbitzu juridikoetara eramango dugu"

#### ALKATEAREN ERANTZUNA

Inazio Lakuntza alkateak, berriz, esan zigun berak ez duela uste prebarikazioa egin duenik: "Guk berba egin dugu Gobernu Batzarrean eta berbaz onartu dugu hori egin egingo dela, baina ez dugu finkatu ez aurrekontua, ezta proiektua ere, hortaz, egiteko dago. Eta horregatik, proiektu berri bat eta aurrekontu berri bat egiteko, proposatu dugu gaur aurrekontua aldatzea. Baina proiektuaren aldaketa ez dago onartuta, ez dagoelako adostuta (...), eta horregatik ez dugu ezer idatzita". Horrekin batera, zera ere gaineratu zuen: "Egia da argizuloaren estruktura zerbait aurreratu dutela. Kontua da obra baten izaten direla momentu ego-

**Alkatea:**  
"Proiektuaren aldaketa ez dago onartuta ez dagoelako adostuta"

ki batzuk zerbait egiteko eta teiltuan obra batzuk egiten zebiltzanez, aurreratu egin dute, baina oraindik ez dago onartuta ez aurrekontua ezta proiektua ere. Hori pasatuko da Hirigintzatik eta osoko bilkuratik".

#### SEXU BEREKOEN ARTEKO EZKONTZA

Eta bestelako artean, pare bat mozio onartu zituen udalbatzararak. Bata, Saharan gertatzen dabilena salatzeke; eta bestea, PSE-EEK aurkeztuta, gay, lesbiana eta bisexualeen eskubideen aldekoa. Besteak beste, sexu berekoen ezkontzak ahalbidetzeko lege erreformak egitearen aldeko azaldu dira. PP abstenitu egin zen ezkontza berba ez zaielako egokia iruditzen.



Arrasateko euskalgintza

## Oihan Zubizarreta gaztearen esperientzia euskararekin

ARRASATEKO EUSKALGINTZA

Arrasaten jaioa naiz duela 20 urte, familia txiki baten; ama, aita, anaia eta laurok. Inguruan izan ditugu baita ere Aretxabaletako *aittejaune* eta *amandrie*, Arrasateko *aitteitte* eta *amama*... Eta euskaraz hezi naute eta euskara izan dut sortzetik alboan.

Horretan behintzat ez dut ukatuko zorteduna izan naizenik, arantza gutxi topatu ditu euskarak ni bilatu artean. Oraindik ere, erdaraz ezer gutxi nekieneko aldi hura gogoratzen dut eta poliki-poliki joan naiz erdaraz gehiago ikasten; hasieran gaztelera, gero ingelesa...

Etxean, berbetan oso iaioak, euskaraz egin dugu beti eta txikitari egin nituen lehenengo berben ondotik, Umezaintzan ekin nion. Handik, Ferixalekura, Gazteluondora eta Almenerako jautzia egin arte ibili nintzen bate-tik bestera. Ikastolan, euskaraz ikasi dut beti eta euskararen mundu zabal horretan bidea egiten hasi nintzen: kantak jolasak, euskalkiak... Irakurri, kantatu eta idatziz murgildu naiz euskararen bide luze baina ederrean. Lehenengo idazlantxoak 13-14 urterekin egin nituen eta gehiago ala gutxiago, batean edo bestean, jarraitu dut zerbait idazten. Hala gertatu zen AED-rekin lagun talde batek muntatu genuen *Tren Literaturioa*-ren istorioarekin, edota Urruzoro Lite-

ratur Lehiaketako bidaiekin, herriko aldizkarietan...

Udatan ere, ordu asko bete ditut Txatxiliko udalekueetan. Azken urteetan Goñiko udalekueetan egin dut txokoa eta burubelarrri gabiltza, euskaraz bizitzeko, euskara biziberritzen. Oraindik, euskararekin egin dudana bide honetan, jarraitzen dut euskararen inguruan jirabiran... Egun, Leioako unibertsitatean ikasten dut eta Bilbon bizi naiz eta bertan euskarak bizi duen egoera da euskarak gure herrian bizi duen egoeraren ispi-lu gordina: irakaskuntzan, erakundeetan, dendetan, komunikabideetan, osasunean, injustizian... eta kalea bera ere bada egoera horren lekuko; seinaleak erdaraz, gazte koadrilak erdaraz, gurasoak erdaraz... euskarak arantzak topatu ditu bidean...

Oraindik ez dakit ni naizen euskararen atzetik dabilena edo euskara den nire arrastoaren atzetik jarraikita dabilena. Bederen, tiraka lortu dut euskara nigana hurbiltzea, zuk ere egiozu tira... harrapatuko zaitu!



### ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Inazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 / 675 70 57 35 ARRASATE

### UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE



ZAHARBERRITZEAK  
PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:  
Kale txiki 3 behe (Musakola)  
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

#### Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak

#### Egur aroztegia

Leihoak  
Ateak  
Armairu enpotratuak  
Armairu-fronteak  
Mota guztietako zoruak  
Lixatua eta bernizatua

#### Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak  
Gortinak, mahaiak eta aulkiak

**GUARDIAKOFARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 1**  
Amezua. Santa Marina 32 . . . . . 943 79 09 74
- ZAPATUA, 2**  
Español. Araba etor. 14 . . . . . 943 79 18 65
- DOMEKA, 3**  
Ruiz. Maala 31 . . . . . 943 79 14 09
- ASTELEHENA, 4**  
Zabala. Zarugalde 42 . . . . . 943 77 16 30
- MARTITZENA, 5**  
Azkoaga. Ferrerías 1 . . . . . 943 79 15 15
- EGUAZTENA, 6**  
Azkoaga. Iturriotz 17 . . . . . 943 79 79 99
- EGUENA, 7**  
Corcuera. M. Aranbarri . . . . . 943 79 22 26
- EGUBAKOITZA, 8**  
Irizar. Erguin 11 . . . . . 943 79 12 39

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

- ERIETXEAK**  
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . 943 03 53 00  
Iguualatorioa. . . . . 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea:  
Gizonak. . . . . 943 79 39 00  
Emakumeak . . . . . 943 79 44 11  
Buru osasunerako etxea . . . . . 943 79 90 11
- LARRALDIAK**  
SOS Deiak . . . . . 112  
Gurutze Gorria. . . . . 943 76 55 76  
DYA . . . . . 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**  
Guardiako medikua . . . . . 943 46 11 11  
Astelehenetik  
egubakoitzera . . . . . 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan . . . . . 14:00etatik 08:30era  
Asteburuetan eta jaiegunetan. . . . . egun osoa
- Arrasate**  
Astelehenetik  
egubakoitzera . . . . . 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan. . . . . 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:  
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak . . . . . 943 03 53 11
- Ikuskatzailea. . . . . 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak . . . . . 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**  
Gipuzkoako Anbulantziak . . . . . 943 45 87 44
- ERTZAINNTZA**  
Arrasate . . . . . 943 79 71 99

- SUHILTZAILAK**  
Udal taldea . . . . . 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaileburua. . . . . 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde Parkea . . . . . 088

- MATXURAK**  
Urak (Udal Zerbitzua) . . . . . 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) . . . . . 943 12 01 62  
Gasa. . . . . 900 40 05 23  
. . . . . 943 79 78 44

- GARRAIOAK**  
Taxiak . . . . . 943 79 12 22  
PESA. . . . . 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**  
Iturbide egoitza . . . . . 943 79 72 11  
Abaroa erretiratuaren egoitza . . . . . 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**  
Monterron. . . . . 943 77 01 05

**MEZAK**

<b>San Juan parrokia</b>	<b>San Andres eliza</b>
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	Domeka 10:00 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)
<b>San Frantzisko eliza</b>	<b>Santa Teresa eliza</b>
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 20:00 San Isidron (euskaraz)
Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (elebiduna) 12:00 (elebiduna) 19:00 (elebiduna)	Domeka 12:30 (gaztelaniaz)
<b>Uribarri parrokia</b>	<b>Santa Marinako eliza</b>
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Domeka 11:30 (elebiduna)	Domeka 11:00 (elebiduna)

**OHARRAK**

**JAI ERROZIEROA**  
Etzi, domeka, jai errozieroa egingo du Al Andalus elkarteak. 09:00etan egin dute hitzordua Euskal Herriko beste Andaluzia elkarteekin. 11:30ean, salbea abestuko diote Ama Birjinari -aurten, artzain jantziko dute, tradizioak hala eskatuta-, eta jarraian prozesioan joango dira Santa Teresako elizaraino. 12:30ean, meza abestua egingo dute, eta Al Andalus elkarteko abesbatzak esku hartuko du. Horren ostean, Arruene parkera eramango dute. Han, Ama Birjinari eskaintzak egingo dizkiote eta egun osoko ospakizunak 19:00ak arte iraungo du.

**FILM EMANALDIA**  
Gaur, egubakoitza, *El penalti más largo del mundo* filma emango dute Monterronen, 22:30ean. Doan izango da.

**BIG BAND-EN KONTZERTUA**  
Bihar, zapatua, Arrasateko Musika Eskolako Big Band taldeak kontzertua egingo du Monterronen, 22:30ean. Doan izango da.

**KONTZERTUA GURE LEKUN**  
Gaur, egubakoitza, Gasteizko Vagón de cola taldeak kontzertua egingo du Gure Leku tabernan, 23:30ean. Pop-rocka egiten dute.

**AEDrenAGENDA**

**EUSKAL KANTUEN LIBURUXKA**  
Seaskak eta Nafarroako Ikastolen Elkarteak 164 euskal abestiz osatutako poltsikoko liburuxka argitaratu dute. AEDn dute salgai, oso merke.

**URBANOENORDUTEGIA**

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea)**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea)**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.  
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea)**  
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**  
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.  
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.


**ORAINDELA 10URTEARRASATEN**

**Aire zabaleko pintura lehiaketa egin zuten**

San Juanetan, Familia eta Gizarte Heziketako Zentroak aire zabaleko pintura lehiaketa antolatu zuen. Margolariak goiz osoan astoarekin eta paletarekin kalean ibili ziren toki aproposena bilatzen lan onena egiteko. Margolari onena Jokin Telleria beasaindarra izan zen.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**



— Gure amandriak, arintzen asi zanian, majo joten zeban panderua lapikoko tapiakin.

JON IRAEGI

**HAUGIROA!**

<b>MINIMOA</b> Egubakoitza, 24	<b>15 °C</b>
<b>MAXIMOA</b> Astelhehena, 27	<b>37 °C</b>
<b>ASTEKO EURIA (l/m²)</b>	<b>1,8 L</b>
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 22	35 °C 18 °C — l/m²
Eguena, 23	36 °C 18 °C — l/m²
Egubakoitza, 24	28 °C 15 °C 1,2 l/m²
Zapatua, 25	23 °C 18 °C 0,4 l/m²
Domeka, 26	28 °C 19 °C — l/m²
Astelhehena, 27	37 °C 18 °C 0,2 l/m²
Martitzena, 28	31 °C 18 °C — l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

**ARRASATE IRRATIA FM 107.7**



**Bidaiak, aisialdirako proposamenak eta lorezaintza, besteak beste, 'Uda Giroan'-en**

Astean estreinatu dugu *Uda Giroan* saioa, berrikuntza askorekin; tarte eta ordutegi berriarekin, esaterako. Entzuleen oporrak antolatzen laguntzeko sortu dugu *Bidaien tarte*. Suitzako Lausanne hirira hurbiltzeko bidea izan dugu, azken zazpi urteotan han bizi den Leire Urzelai eskoriatzarraren eskutik. Suitzarako asmotan izanez gero, baliagarriak izango zaizkizue berak emandako aholkuak. *Asteko gainbegiratu*-n berreskuratu ditugu horiek guztiak. Asteburuan

entzun dezakezue, baita ere, Bergarako Gorosti loradendaren eskutik sortu dugun *Lortegia tarte*-ren lehenengo kapitulua, lurren eta ezaugarrien gainekoa. Eguazteno izango dugu 107.7an Irene Zenitagoia lora eta landare aditua.

**ARRASATEKO ALKATEA**

Arrasateko alkate Inazio Lakuntza astean irratan izan da, eta Nerea Zubiete kazetariari hainbat kontu azaldu dizkio. Asteburuan errepikatutako dugu.



**ASTEKO PROGRAMAZIOA**

- ZAPATUA**  
10:00 **Asteko gainbegiratu**. Aitor Urresti, homosexualen eskubideen gainean; Irene Zenitagoia, lora eta landare aditua; Arrasateko alkate Inazio Lakuntza; Leire Urzelai, Suitzaren gainean; Igor Ezepeleta, capoeira irakaslea...
- DOMEKA**  
10:00 **Asteko gainbegiratu**.
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**  
10:00-12:00 **UDA GIROAN**  
Albistegia.  
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa). Garaio, hondartza eta igerilekuekin konezioak.  
Lortegia tarte.  
Bidaia tarte.  
Zorion agurren tarte (Esku hartzeko, 943 71 17 31).
- 12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra**.
- 12:20 **Izarren ordua**: abesti ezagunak
- 13:00 **Euskadi Irratiko albistegia**.
- 14:00 **UDA GIROAN (errep.)**
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra**.

## KALEINKESTA/ Erregaixen preziuen gorakadie dala-eta, arduratute? Hartzen dozu neurririk?




**AMAIA URKIOLA**  
Langillie

Bai, horixe; danok, esango neuke. Kotxien-eta ibiltten garenien, berehalaxe igeriten dou preziuek gora egin dauela. Jentiek ez dakit neurririk hartuko dauen, baiñe neuk hartzen dot.



**SANTIAGO CARMONA**  
Langillie

Danok, esango neuke. Baiñe kotxie ezinbestekue da. Argi dau biher baiño gehixau ibiltten doule kotxie, eta prezio horrekin, lanera-eta jueteko konpartidu egin biherko geukela.



**MIKEL ERRASTI**  
Langillie

Egixe da preziuen gorakadie dala-eta asko kejetan garel, baiñe neuk, behintzet, bardin-bardin ibiltten dot kotxie. Transporte publikue ibilli biherko geuke gehixau, baiñe...



**LEIRE MADINABEITIA**  
Langillie

Arduratu danok egitten gare, baiñe ez dot pentsetan jentiek gauza haundi-rik egitten dauenik horren kontra. Ohitturak hartzen dienien, kanbixetie gatxizeten da.



**EDUARDO ABARRATEGI**  
Langillie

Egixe esan biher badot, problema horretan ez dot askorik pentsetan. Kotxiei gasoliñie bota noizbehinka, eta aurrera. Lanera jueteko ibiltten dot, eta egixe da bizikletan juen neikela.



**MARI JOSE UNTZUETA**  
Langillie

Arduratu bai egitten gare, baiñe esango neuke kotxie hartzen dounien akordau be ez garel egitten gasoliñiek ze prezio daukon. Kotxie hartu, depositue bete, eta aurrera.

### USTEAKUSTE

#### Fraga

Oraindik gazteak gara -horixe uste dugu eta hala izango da- baina, dagoeneko makina bat gauza ikusitakoak gara. Horregatik uste nuen Fragak berriro Galiziako hauteskundeetan gehiengo absolutua lortuko zuela. Atzerrian bizi diren galiziarren botoen zenbaketa luzeak susmo txarra eman zidan. Gogoratu Bushekin gertatu zena. *Prestige*-ren ezbeharrak gertatu eta ondorengo hauteskundeetan emaitzak aditzera eman zituztenean, AEBetako eta Galiziako biztanleak parekatu egin nituen, ozeano beste aldekoek ere Bushi babes eman ziotelako 11-S delakoa gertatu ostean.

Bueno, oraingoz kontu guzti horiek alde batera utzi beharko ditugu, boto kopuru handiarengatik ez izan arren, agintea beste batzuk hartuko dute-eta. Kolokan egongo dira orain lagun ugari. Urteetan besaulkietan eroso egon diren asko dardaran egongo dira.

Ez dakigu orain aginduko dutenak zelakoak izango diren, baina ez da gutxi momentuz behintzat Fraga begi bistatik kentzea. Galizian ezarritako antigoaleko feudalismoaren errudun nagusia izateaz gain, beste leku askotan eragin duen mina ez edozelakoa. Bazen horretarako ordua!

IKER BARANDIARAN

### TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK KANTOIEN GARBIKETARI** Alde zaharrea bizi diren arrasatear batzuek esan digute oso haserre daudela Udalarekin, are gehiago San Juanak igaro ondoren. Euren esanetan, Udaleko garbitzaileek ez dituzte alde zaharreko kantoiak "behar den moduan garbitzen". "San Juanetan, egunero kale batzuk garbitu dituzte, baina kantoiak ez. Kontuan izanda kantoiak txoko ezkutukoak direla, askoz zabor gehiago pilatzen da: pixa eta denetatik". Horregatik, Udalarari eskatzen diote "kantoiak ganoraz garbitzeko".

### ASTEKODATUA

12

**FILM LABUR AURKEZTU ZITUZTEN SEXMETRAIAN**

Astean aditzera eman dituzte Sexmetraia Lehiaketako lan irabazleak. Udaleko Sexologia Zerbitzua oso pozik dago lehiaketak izan duen harrerarekin. Guztira, 12 lan aurkeztu dituzte. Horieta-ko batzuk atzeritik. 2007an egingo dute bigarren edizioa.

### HERRITARRENBERBAK/ Ander Etxeberria



#### Burbuila efektua

**B**atzuetan, inguruan entzundakoez iragarpenak egiten ditugu jendearen portaerari buruz. Kanean, lanean edo dena delakoan esan direnak jaso eta konturatu gabe guztion iritzia daukagulakoan gaude. Konklusioak izan daitezke, adibidez: bozketa baten aurrean "jendea ez dago horren alde botoa emateko prest", edo antolatutako ekitaldi bati dagokionean "jendea animatuta dago parte hartzeko". Kontua da jasotako ikuspuntu horiek gertukoak izan ohi direnez, eta ez hemengoak eta hangoak, probabilitate altua dutela antzerakoak izateko. Eta beraz, burbuila txiki horretakoak ez du zertan izan behar osotasunaren iritzia.

Mundumira jaialdia izan berri dugu herrian eta bailaran. Zerbait egun lehenago, ezagun batekin berbetan, elkartasun kontuetan buru-belarri dabilena, horrela esan zidan: "Izugarritzko jendetza etorri behar da". Uste berekoa izango zen antola-

kuntza bera ere, gaitasun handiko garraio eta aparkaleku sistema moldatu baituzten etorriko zenari behar bezala aurre egiteko. Aipatutako ikuspegiarekin eta beste batzuekin egindako erantzun-bilduma partikularren arabera (burbuila batekoak

**"Jendea erakartzeko komunikazio-publizitate behar da, burbuila gehiagotara iristeko"**

hauek ere), ordea, ez ziren gutxi aste hartan bertan enteratu zirenak, eta Mundumiraren berri zutenen artean batek baino gehiagok ez zekien zer zen.

Orri hauetan idatzi denez, berriro ospatzeko asmoa agertu dute antolatzailuek. Poztekoa da, festa polita eta aberasgarria baita, mota askotako ekintzez osatua guztion gozamenerako. Kronika berak dio hurrengo edizio bati begira puntu batzuk zuzendu beharko lituzketela. Hala ere, hobetu beharrekoen artean ez da aipatzen jendea erakartzeko komunikazio-publizitateak izan beharko lukeen bultzada, bai denboran eta bai kantitatean, harik eta burbuila gehiagotara iristeko.

Arrasate Press

Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 11  
Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA  
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA  
Ubane Madera  
Xabier Urtzelai

MAKETAZIOA  
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA  
Natali Martínez  
Amaia Mundiñano  
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA  
Agurtzane Gainzarain  
Ane Berezibar  
Iratxe Bengoa

BANAKETA  
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA  
SS-1124/88

ISSN  
0214-4654

TIRADA  
7.350 ale

Goiena  
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Aramaioko  
Udala

UDALEKUAK/ Uztailean, udalekuek kirola izango dute ardatz

# Leintz Eskola Kiroletik 92 neska-mutiko Oleara, eta beste 32 Santiagora

XABIER URTZELAI

Gaur goizean abiatu dira Leintz Eskola Kiroleko 92 neska-mutiko Oleara (Kantabria). Uztailearen 10era arte izango dira han, baina ez da irteera bakarria izango. Astelehenean, Arizmendiko 32 gaztek Santiagorako bidea hartuko dute, bizikletan.

Koadrila galanta abiatu da gaur goizean Kantabria aldera. Joan den urtean Bernedon (Araba) egin zuten egonaldia Olean egingo dute aurten. Urtzi Amianok eman dizkigu xehetasun gehiago: "Aldatzea ondo dago, eta baita Euskal Herrikan kanpo dauden herriak ezagutzea ere. Olean hurbilago izango dute hondartza, eta orain arte egin ez dituzten ekintzak egin ahal izango dituzte han. Bihar bertan, adibidez, Oriñongo hondartzara joango dira". Hamar begirale izango dira 92 neska-mutikoak zaintzeko: "Mendi irteerak egingo dituzte, piraguan ibiliko dira, jokoak...". Bistan da gazteek gauean ez dutela iskanbila handirik sortuko, egun guztia gora eta behera ibili eta gero neka-neka eginda oheratuko dira-eta. Gainera, seguru hori dela helburua.

## ASTELEHENEAN, SANTIAGORA

Astelehenean, berriz, Santiagorako bidea hartuko dute Arizmendiko 32 ikaslek eta lau begiralek. Begirale horien artean, Urtzi ibiliko da koordinatzaile lanetan: "Burgosen hasiko dugu ibilaldia, eta zortzi egun inguru beharko ditugu Santiagora iristeko. Gai nontzeko begiraleek bizikletan egingo dute bidaia, baina ni furgonetan joango naiz, laguntzen". Helburuen gainean egin digu berba Urtzik: "Ez da Santiagora joa-



Joan den urtean Bernedon egin zituzten kirol udalekuak; Kantabriarako bidea hartu dute gaur.

*"Bihar Oriñongo hondartzara joango dira, eta hainbat ekintza egingo dituzte han"*


tea bakarrik. Bide hori ezagutzea ondo dago, baina biziko dugun abentura, ezagutuko ditugun herriak, egingo ditugun lagunak... Oso aberasgarria izango da". Bidaiak izango ditu bere zailtasunak: "Lehenengo bi etapetan, egu-

*"Santiagora bidean, gazteek abentura polita bizi ahal izango dute, eta leku mordoa ezagutu"*

nean 80 kilometro inguru egingo ditugu, baina hurrengoak lasaia goak izango dira, zer bisitatu egongo delako. Horrez gain, janaria eta horrelakoak taldeka prestatuko dituzte. Gazteek ikusi behar dute gauza direla gauza horiek guztiak

*"Bidaian zehar hainbat lan egin beharko dituzte; ez diegu dena eginda emango"*

egiteko, ez diegu dena eginda emango, eta ondo dakite hori". Eta entrenatu ote diren galdetuta, hauxe Urtziren erantzuna: "Guztiak ez dakit, baina badakit batzuk ibili direla entrenatzen. Ezer egin ez duena damutuko da...".



## Arantzazutik Etxegaratera, etzi

Arantzazutik Etxegaratera dagoen ibilbidea egingo dute Besaidekoek domekan, Gipuzkoako Itzuliko beste etapa batean. Inoiz baino goizago elkartuko dira (07:00etan), egingo duen beroarekin goizeko freskotasuna aprobetxatzea komeni da-eta. Autobusean joango dira Arantzazuraino, eta antolatzaileek bost ordu inguruko ibilbidea izango dela aurreikusten dute. Menditik itzulia egin eta gero, Etxegaraten bertan izango dute autobusa zain, Arrasatera itzultzeko. /X.U.

## LABUR

### Mondraren zuzendaritza zailtasun handiekin

Mondrak datorren denboraldiaren aurkezpena egingo du datorren uztailearen 11n. Zuzendaritza talde berria, baina, gura baino zailtasun handiagoekin dabil. Udalak hainbat dokumentu eskatzen dizkio, aurrera egin ahal izateko. Kontu horiek guztiak konpontzeko, datorren astelehenean izango dute batzarra Mondraren eta Udalaren ordezkariak. Mondrako zuzendaritzak Udalari eskatuko dio na da trabak jartzen ibili beharrean lana erraztea.

Mondra hartu dutenek ez dute etekin ekonomikorik gura, baina ezta behar baino zailtasun handiagoak ere. Hala, Udalak ez baditu erraztasun horiek ematen, zuzendaritzakoek aurreratu digute ez dutela jarraituko.

### 'Busti zaitze' esklerosi anizkoitzaren alde

Domekan egingo dute, Euskal Herri osoan, *Busti zaitze* esklerosi anizkoitzaren aldeko kanpaina. Ekimen horrekin bat egingo dute Euskal Herriko hondartza eta igerileku askotan, 70 lekutan, guztira. Eta Arrasateko igerilekuan egongo da ekimen horretan esku hartzeko aukera; horretarako, igerilekura joan, eta murgilaldi bat egitea nahikoa izango da.

Helburu da gazte eta nagusiei eragiten dien gaixotasun horren berri eman, eta gizar-tea sentsibilizatzea. Horrekin batera, dirulaguntzak behar dituzte, gaixotasunari aurre egin ahal izateko baliabideak lortzeko. Horretarako, errehabilitaziorako zentroak ireki gura dituzte Gipuzkoan eta Araban.

### Jonathan Perezek 4,90 metroko jauzia, Benidormen

Realeko ordezkaria gustura itzuli da Benidormen egin duten Espainiako Taldekako Txapelketatik. Arrasatekoak 4,90 metroko jauzia egin zuen, eta hori da aurtengo aire libreko Euskadiko marka onena. Arrasatekoa laugarren sailkatu zen, eta taldeka ere, Realak postu hori lortu zuen.

Lander Errastik ez zuen zorte bera izan. Haizea kontratua, Arrasatekoak 3,85 metroko jauzia egin zuen Madrilen. Gazte Mailako Espainiako Txapelketan. Hala, Landerrek ezin izan zuen lau metroko marka gainditu.

## Martin Gutierrezz madrildarrak irabazi du Sexmetraiako lehen saria

IKER BARANDIARAN

Sexmetraia film laburren lehiaketaren lehenengo edizioa arrakastatsua izan da. 12 lan jaso dituzte Espainiatik, Frantziako Estatutik eta Euskal Herritik. Hiru sari garrantzitsu banatu dituzte.

Sexmetraia film laburren lehiaketak oso harrera ona izan du. Hori azpimarratu zuten Udaleko Sexologia Zerbitzuko arduradunek lehiaketako sari banaketan. Martitzenean egin zuten ekitaldi hori Amaia Udal Antzokian, eta Sexologia Zerbitzuko arduradun Larraitz Arandok aurkeztu zuen, Ugutz Usandizagaren laguntzarekin.

Ekitaldian bederatzi film labur eman zituzten: Arantza Bolunbururen *La habitación blanca*, Egoitzen *Arte X*, Tom de Pekinen *Devil inside*, Saria Mazkiaranaren *La llorona*, Zuriñe Lopez de Sanbadoren *Fluidos*, Eli Villarren eta Izaskun Gaztelumendiren *A+B*, eta sariak jaso zituzten hiru film labur irabazleak.

### SEXOLOGIA, EUSKARA ETA TEKNIKA

Lehiaketako epaimahaiak hiru arlo bereiztu zituen, eta horren arabera hiru sari banatu zituzten. Sexmetraia saria *Elena* film laburrari eman zioten. Egilea 23 urteko Martin Gutierrez Lopez madrildarra da, eta 1.500 euro jaso zituen. Teknika eta gaia kontuan hartuta eman zioten sari handiena lan horri.

Epaimahaiaren arabera, sexologiaren gaia hoberen landu zuen lana *Maider* da. Egilea 30 urteko Jorge Barrau madrildarra da, eta hari eman zioten Sexologia saria, 600 euro.

Euskara ere aintzat hartu zuten. Aretxabaletako Yera Sanchez gaztearen *-23 urte dituzte Marra urdinen bitartez...* lanak Sexologia Euskaraz saria jaso



Argazkian, Larraitz Arando eta Ugutz Usandizaga ekitaldia aurkezten.

*Epaimahaiak teknika, sexologia eta euskara saritu zituen, eta hiru sari banatu zituzten*

zuen. Hala, Yerak 300 euro poltsikoratu zituen.

Sexologia Zerbitzuko arduradun Larraitz Arandok aditerra eman zuen guztira 12 film labur jaso dituztela, eta oso pozik dardela. Batzuk Frantziako Estatutik heldu dira, beste batzuk

*Frantziako Estatuko, Espainiako eta Euskal Herriko 12 lan aurkeztu dituzte*

Espainiatik eta hainbat Euskal Herritik. Modu berean, Arandok azpimarratu zuen parte-hartzaileak oso gazteak izan direla, eta lanetako protagonista gehienak emakumezkoak izan direla.

2007an lehiaketa berriro antolatuko dutela gogoratu zuten.

## Bihar, zapatua, Big Band taldeak kontzertua egingo du

I.B.

Asteburuan hasiko da Udaleko Kultura Sailak antolatutako uztaileko programazioa. Gaur, egubakoitza, *El penalti más largo del mundo* filma emango dute; eta bihar, kontzertua egingo dute Monterronen.

Eguraldi ona eginez gero, Monterron aproposa da kultura jarduerak egiteko. Uztaileko egubakoitz guztietan filmak emango dituzte han, baina bestelako ekintzak ere egingo dituzte. Gaur, egubakoitza, Fernando Tejero protagonista duen *El penalti más largo del mundo* komedia emango dute.

Bihar, zapatua, Arrasateko Musika Eskolako Big Band taldeak kontzertua egingo du Monterronen, 22:30ean. Ekitaldi hori, film emanaldiak bezala, doan izango da.

### IBILBIDE ARRAKASTATSUA

Taldea 2000-2001 ikasturtean sortu zuten Arrasateko Musika Eskolan. Iker Olazabal izan zen hasierako zuzendaria. Baina Olazaba-

lek taldea utzi behar izan zuen, Arrasateko Musika Eskolako Banda zuzentzeko. Hortaz, Zigor Martinez bergararrak ordezkatu zuen Olazabal, joan den urtean.

Taldea sasoi dagoela esan dezakegu. Aspaldi honetan hainbat kontzertu egin dituzte: Eskolan egindakoez gain, Bergaran, Elgetan, Vianan eta beste herri batzuetan ibili dira.

### DISKOA AURKEZTUKO DUTE

Hain zuzen ere, bihar, zapatua, diskoa aurkeztuko dute Monterronen. Elgetako Espaloia antzokian grabatu zuten, eta hainbat musika estilotako kantuak batzen ditu: jaza, bluesa, bossa nova, rocka, eta abar. Horiek guztiak joko dituzte zuzenean.

*Jazza, bluesa, bossa nova, rocka eta beste estilo batzuetako kantuak jotzen dituzte*



Big Band taldeak diskoa aurkeztuko du.

► Gure Kooperatibaren historiari buruzko argazki eta zinema irudiak biltzen ari gara, 50. hamarkadatik gaur egunerarte. Debagoiena nolakoa zen erakusten dituzten irudiak ere erabilgarriak izango lirateke.

Etxean Super 8, 16 mm. edo 35 mm.-tako filmerik eduki ezkeru eta gurekin kolaboratu nahi baduzu, mesedez deitu iezaguzu hurrengo telefonora:

Mikel Murgizu  
943 71 91 00

Fagor Etxetresna Elektrikoak  
San Andrés auzoa, 18  
20500 - Arrasate



FAGOR

BASATI  
TABERNA  
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK  
943 711768

## BOTEPRONTUEN

## Kontxi Saez

## ETXE-LAN

XABIER URTZELAI

**Etxe-Lan kooperatiba txiki bat da, Fagorrendako lan egitten dauena. Zerbitzu teknikue emuten hasi zien, SAT moduen ezaguketan dana, baiñe oin salmentetan be ibiltten die. Hamar urte pasau die proiektuek egitten hasi zientetik.**

**Ze lan egitten dozue Etxe-Lanen?**

Lehen zerbitzu teknikue ofreziduten geuen, bai etxietan eta baitte industriarako be. Gero hasi gizen salmentak egitten, industriarako, eta oin, proiektu osuek egitten dou: tabernetarako, jate-txietarako, komedorietarako...

**Gertutasunei emuten dutzeue inportantzia.**

Geuretako oso inportantie da hori, zerbitzu teknikuen, batez be. Azken baten, taberna bat frigorifiko barik geraketan bada, berehalaxe konpondu biher da hori, eta hori da geure ardurie.

**Ze saltzen dozue gehixen?**

Salmentak industrialerako egitten dou, eta ez neuke jakingo esaten ze saltzen dou gehixen. Egixe esateko, oin asko egitten doune da proiektu osuek montau: sukalde edo komedore dana montau, adibidez.

**Gauza asko euki biherko die kontuen.**

Bai. Fabrika bateko komedorie egitterakuen, adibidez, jakin biher dou zenbat lagunendako izengo dan, eta sukaldie horren arabera montau. Jatetxe bateko sukaldie egitterakuen, barriz, eguneko menuek edo kartara emungo dauen jakin biher dou, hori be diferentie da-eta.

**Poliki-poliki, haundi egin da Etxe-Lan.**

Haundiketean juen gare, bai. Oin hoge lagunetik gora gabitz hamen, eta daueneko gure lokala txiki geratu da. Eskoriatzan jarriko dou lokal barrixe.

**Ze da zeure laneko gauza txarrena?**

Gutxitan pasetan jaku, baiñe pertsona batzuk hasarretu egitten die zeozer aberixau eta konpon-



*“Erreklamaziñuek egitteko ezinbestekue da fakturie erakustie; horreik gorde egin biher die”*

ketiagaittik pagau egin biher dauenien. Hori dauko SATek txarra, jentie hasarretu egitten danien lana ez dala oso gratifikantie.

**Alde horretatik, Fagorrek 5 urteko garantixie dauko.**

Hori da fabrikantiek ofreziduten dauena, baiñe legiek esaten dau bi urtien garantixie saltzailiek emun biher dauela. Hortan, guk eskaintzen dou bi urte, eta Fagorrek beste hiru. Hori bai, jentiek euki biher dau argi zelako inportantie dan fakturie. Edozein erreklamaziño egitteko, fakturak gorde egin biher die.

**Eta laneko gauza onena?**

Proiektu oso bat egin, eta klientie gustora geraketan danien.

*“Geuretako gertutasune oso inportantie da, edozein aberixa egoten bada be”*

Horrek motibau egitten dau.

**Lana alde batera itxitte: ze falta jako Mondraguei?**

Hamengo komertziuen aldeko apostu haundixau. Izen be, Gasteiz oso gertu daukou.

**Eta ze dauko Mondraguek ona?**

Herriko girue dauela.

**Pelikula bat / Liburu bat / Musika talde bat.**

*Memorias de África / La república de los sueños / La Oreja de Van Gogh.*

**Ze falta jatzu zeuri?**

Mille milloi, lanera gehixau ez etorteko.

**Eta diru horrekin, zer?**

Hara eta hona biajau.

## NIREBIDAIAHURA/ Maider Heriz

Guatemala / Urtarriletik apirilera arte

**G**uatemalaako egonaldia bi zatitan banatzen du Maiderrek. Lehena, eskolak ematen egon zena, bi hilabete inguru. Eta bigarrena, eskolak amaitu, eta turismoa egitera joan zirenekoa. Dena dela, eskolak ematen zituztenean ere, asteburuak inguruak ezagutzeko aprobetxatu zituzten: “Lehenengo asteburuan Atitlan lakura joan ginen. Hangoek esaten dute munduko lakurik politena dela. Hurrengo asteburuetan Chicabal lakura, Santiagitora... Santiagiton, yanki bat etorri zen gurekin. Sekulako motxila zeraman, argazki kamera ikusgarriarekin. Sumendira gura genuen joan, eta gurekin etorri zen. Igotzen genbiltzala, yanki xelebre hura botaka egiten hasi zen; ez genion kasu handirik egin, eta galduta ibili zen mendian. Hala-ko batean azaldu zen kampa-mendura, eta han ere botaka egiten jarraitu zuen. Hurrengo goizean, zerbait erakutsi guranedo, korrika hasi zen mendian behera. Erreka batera erori zen, sekulako kolpea hartuta. Hantxe apurtu zuen argazki kamera. Zelako barreak egin genituen haren kontura...”

Antiguan eta Tajumulcon ere izan ziren Maider eta lagunak: “Antigua da Guatemala lehengo hiriburua. Erre egin zen, eta orain, turismo handia dago han. Tajumulco, berriz, Ertamerikako sumendi handiena da (4.220 metro). Han ikusi ditut neure bizitzako iluntze eta egunsenti politenetakoak. Katalanekin elkartu ginen han, eta ederto moldatu ginen eurekin. Gainera, Tajumulcotik Mexiko ikusten da”. Eskolak ematen ibili zireneko azken asteburuak Monterricon eta Todosantos igaro zituzten: “Monterrico Pazifiko aldean dago, eta hondartza beltza dauka. Egonaldia atsedean hartzeko aprobetxatu genuen, baina nahiko lan izan genuen euliak uxatzen. Todosantos, berriz, mendian galduta dagoen herrixka da, aspaldiko ohiturak gordetzen dituzte han: janzkerak...”. Eskolak amaitutakoan egindako bidaiarekin jarraituko dugu.

XABIER URTZELAI



“Iluntze eta egunsenti ederrak ikusi genituen Tajumulcon”.



## Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?  
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.







## ARRASATEN URTE MORDOA EGON ETA GERO, LAGUN GUZTIEI, GERO ARTE!!!

**A**ste barruan etorri dira ARRASATE PRESSera argazkian dituzuen Susana, Unai eta Amets. Kontua da, Arrasaten bizi izaten egon eta gero, Nafarroa aldera egingo dutela, Tuterara, hain zuzen. Baina ez dute inora joan gura izan Arrasaten egin dituzten lagun guztiei agur esan barik. Eta horretarako etorri dira guregana, erretratu bat atera, eta ezagutzen dituzten guztiak agurtzeko. Dena dela, Susanak esan digu noizean behin etorriko direla Arrasatera, bisitan. Hortaz, agur esan barik gero arte baino ez dute esango. Gainera, eurak etortzeaz gain, imajinatzen dugu ez dutela inongo arazorik izango lagun guztiak Tuterara gonbidatzeko. Hortaz, badakizue...



## 'SEVILLARRAREN OSTALARIA' ZARZUELAN, ARRASATEKO ABESLARIAK MAILA ONEAN

**E**kainaren 18ko eta 19ko asteburuan, *Sevillarraren Ostalaria* zarzuela egin zuten Donostian, Antzoki Zaharrean. Zarzuela horretan, izen handiko abeslariak hartu zuten esku, profesionalak direnak. Tartean, baina, profesionalak ez, baina taula gainera igotzen diren bakoitzean maila polita ematen duten arrasatearrak izan ziren. Sasibill Elkarte Lirikokoek jendea behar zuten, eta Arrasateko zarzuelan esku hartu zutenengana jo zuten, protagonismo handiko hainbat paper edota kolaboratzaile lanak egiteko eskatzera. Eta goiko erretratuan azaltzen dira Arrasateko ordezkariak. Kikildu barik, ikuskizun biribila eurena.



## PEDRO SALABERRIK 50 URTE EGIN DITU ABADE, HORIETAKO ASKO ARRASATEN

**E**ta horixe ospatuko du familiakoekin eta gertukoekin. Izan ere, domekan elizkizun berezia egingo dute San Juan Bataiatzailearen elizan. Abuztuaren 15ean egingo ditu 50 urte, 1955eko abuztuaren 15ean abadetu zutelako. Goiko erretratu abadetu eta urte gutxira ateratakoa da, Markinan, Juan Jose anaia ezkondu zueneko. 12 urterekin seminariora joan zen, eta gero egon zen Bergaran, Saturraranean, Gasteizen eta Donostian. Abadetu eta gero, lanean ibili zen Aztirian eta Urretxun, eta 1972an etorri zen Arrasatera. Urte mordoa egin ditu hemen, eta inork baino hobeto ezagutzen ditu Arrasateko kontuak. Ezagutzen dutenek diote gizon apala dela, oso langilea, eta protagonismorik gura izan ez duena. Oraingoan, gura barik bilakatu da protagonista, baina 50 urte ez dira egunero ospatzen. Zorionak!



## DEBAGOIENEKO ZIKOTURISTAK SORIAN, SASOI ONEAN DAUDELA ERAKUSTEN

**E**kainaren erdialdean egin zuten Debagoieneko Zikloturista Taldekoek urtero egiten duten irteera. Inguruuko errepideak ahaztu, eta Soriako inguruak aukeratu zituzten gorputzaldi onean daudela erakusteko, nahiz eta batek baino gehiagok gorriak ikusi Neilako maldetan. Ekainaren 11n, 130 kilometroko ibilbidea egin zuten. Vinuesan hasi zuten etapa, handik Santa Inesera, eta Las Vinierras eta Lagunas de Neila mendateak igo zituzten. Eta, Las Vinierras mendatean ateratako argazkia da goikoa; Urbiongo mendilerroa da atzealdean azaltzen dena. Domekan, berriz, Urbionen dagoen Laguna Negra laku ezagunera egin zuten irteera. Esan barik doa Soria paraje ederra dela bizikletan ibiltzeko, eta zikloturista taldekoei galdetu bestela, gustura itzuli ziren-eta.

## ELKARRIZKETA

ANTONIO MURILLO/ARGAZKILARIA

*“Pazientzia handia izan behar dugu, eta leku ezohikoetan edertasuna bilatu”*

IKER BARANDIARAN

**A**ntonio Murillok urte asko daramatza argazkiak egiten. Aspaldi honetan Argitan kultura elkarte-kide da, eta argazkilaritzaren gaineko hainbat ikastaro eman ditu. Oraingoan argazkilaritza digitala irakatsiko du.

**Noiz eta zelan hasi zinen argazkiak egiten?**


Anaia nagusiak lehen jaunartzea egin zuenean argazki kamera opari egin zioten. Anaiak ez zuenez kamera erabiltzen, nik hartu nuen. 5 bat urte izango nituen orduan. Handik urte batzuetara, Eskola Politeknikoan ikasten nabilela beste argazki kamera bat erosi nuen Alecopen irabazitako diruarekin. Werlisa bat zen. Hiru anaiok argazkilaritzaren zale handiak gara, baina gutako inor ez da argazkilaria profesionala. Nagusiak argazkilaria onenekin ikasi du. Beste biok, berriz, gure kabuz ikasi dugu.

Hasieran ilunabarrak, iluntzeak... egiten nituen, postaletakoak modukoak. Baina gaur egun ez dut gustuko halako argazkiak egitea. Horren ostean, Canon T-70 bat eduki nuen, eta baita ere Canon 600 bat. Canon 600arekin ni nintzen kamera kontrolatzen zuena, diafragma jartzen zuena... Orduan hasi nintzen argazkilaritza benetan ikasten eta nik neuk argazkia egiten. Nire ustetan Canon 600 da merkaturan egon den kamerarik onena. Horrez ostean, Bronica bat erosi nuen, 4,5x6koa, bigarren eskukoa; eta orain dela gutxi, Canon digital bat.

**Zer behar du argazki batek ona izateko?**

Ez dadila izan mundu guztiak ikusten duen zerbait. Argazkilariak pazientzia izan behar du. Adibidez, aurpegi bat fotografatzerakoan bilatzen duzun espresioaren zain egon behar duzu. Enfokatzen zabilzan objektuak atentzio-puntua izateari utzi behar dio, eta mundu guztia zuri begira dago argazkia egiteko zain. Adibidez, umeen danborradan ni geldi-geldi nengoen eta ume guztiek begiratzen zidaten, nik atara gura nuena izan ezik. Lortu gura dudana espresio hori harrrapatu arte itxaroten dut.

Eta paisaien kasuan, adibidez, elizara begira egon zaitezke argazkia prestatzen, baina agian zure interesa pizten duena ez da eliza, eta hori elizaren atzean dago. Postale herriko politena eta adierazgarriena erakusten dute, baina guk leku ezohikoetan bilatzen dugu edertasuna, edo horretan saiatzeko gara.



*“Herritar batzuek diote Arrasate zatarra dela, baina ez dakite zelako altxorrak ditugun”*

**Tabernan hainbat erakusketak egin dituzu, eta egutegiak kaleratu izan dituzu. Zer helburu dute horiek?**

Egutegiak kaleratzen hasi ginen, Arrasateko irudi asko ez daudelako jasota. Gogoan daukat Euskadiko Kutxako lehenengo egutegietan Arrasateko jendea (dantzariak...) agertzen zela, baina ez dituzte Arrasateko txokoak erakutsi. Badirudi Arrasaten fabrikak bakarrik daudela, baina askoz gauza gehiago daude. Normalean, halako egutegietan Gasteizko, Donostiako... irudiak agertzen dira. Adibidez, oñatiarrek herriari beste balio bat ematen diote. Arrasatearrek ez dute halakorik egiten, eta hori aldatzeko ahaleginetan gabilta.

*“Argazkilaritza ikasteko aproposa da margolaritza aztertzea, oinarria hor dago-eta”*

**Arrasate Argitan kultura elkarte-kide ere bazara. Zer helburu dauka elkarte horrek?**

Argitan irabazi-asmorik gabeko kultura elkarte da. Ez dugu Arrasateko industria izaera ezabatu gura, baina herriak dituen beste gauza batzuk erakutsi gura ditugu. Herritarrek Arrasateko kide duten irudia aldatu gura dugu. Arrasatearrek euren herria maite dute, baina ikasi behar dute dituzten txokoak ezagutzen eta baloratzen. Adibidez, oñatiarrek euren herria saltzen badakite, eta horretan dihardute. Eurengandik ikasi beharko genuke.

Arrasatear batzuek diote Arrasate herria zatarra dela, baina ez dira konturatzen zelako

altxorrak ditugun: jauregiak, erdigune historikoa, parkeak, baselizak, Etxezarreta jauregia eta inguruak, ur-errotak...

**Jakin dudanez, Oñatiren gaineko liburua laster aurkeztu gura duzue. Zelakoa izango da?**

Bai, Oñatiren gaineko liburua uztailaren 20an-edo aurkeztuko dugu. Oñatiko eta beste herri batzuetako argazkilariek esku hartu dute. Urte eta erdi daramagu lan hori egiten. Arrasate irudiak liburua egitea erronka handia izan zen, eta gustura gelditu ginen. Baina orain gauzak hobetu egin behar ditugu, eta iraganean egindako akatsak zuzentzen ibili gara. Horrez gain, Oñatik lan handiagoa eskatzen du, herriak beste berezitasun batzuk dituelako, eta berez eraikinak ezagunagoak direlako. Askotan beste ikuspuntu bat eman behar izan diogu. Horretarako, oso aberasgarria izan da Oñatiko eta kanpoko argazkilariak ibiltzea.

**Argitan kultura elkarteak badauka beste egitasmorik esku artean?**

Berez gu edozein proposamenei zabalik gaude. Eta elkartearen bertan ere lagun gehiago sar daitezke. Beste proiekturen bat proposatzen badigute, aztertuko dugu. Bestalde, nik neuk gurako nuke Aretxabaleta eta Eskoriatza inguruko elizate eta auzoen gaineko liburu bat egin. Baina ez dakit egingo dugun.

**Zer da argazkilaritza eskolatan erakusten duzun lehenengo gauza?**

Eman ditudan eskola guztietan nabarmendu dut argazkilaritzaren oinarria margolaritza dela. Ez dezatela erosi argazkilaritzaren gaineko aldizkaririk. Etxean eduki dezaketen margolaritzaren gaineko liburu batekin oinarriak ikas ditzakete: argia, gerizpeak, konposaketak...

**Nori zuzenduta dago ikastarora, eta zer erakutsiko duzu, batez ere?**

Orain dela hilabete batzuk argazki digitalaren gaineko beste ikastaro bat eman nuen, baina jende larregi apuntatu zen, eta beste bat antolatzea erabaki dute. Ikasleei gogoratuko diet orain arte negatiboak dendatara eramaten genituela, eta laborategietan ematen zietela bukaera argazkiei. Gauza horiek guztiak informatikako programen bitartez gure egin ditzakegula erakutsiko diet. Lan horri bost-hamar minutu emanez gero, emaitza hobeak lor daitezke. Bestalde, ez dakit argazkirik egiteko aukerarik izango dugun, baina argazkiak manipulatzeko ikasiko dute.

## LABUR

**Gaztetxoendako ekintza gehiago, Txatxilipurdirekin**

Txatxilipurdi euskara eta aisialdi elkarteak udalekue-tara joan ez diren gaztetxoendako hainbat ekintza antolatuko dituzte. “Hilabete honetan gazteek aisialdirako denbora luzea daukate, eta horren beharra zutela aditzera eman ziguten horietako batzuek”, azpimarratu zuen Txatxilipurdiko arduradun Elena Herrartek.

Arrazoi horregatik, ikas turtean gazte txokoetan egiten dituzten antzeko ekintzak prestatu eta egitarau zabala osatu dute.

Astelehenean, hilaren 4an, hondartzara txangoa egingo dute. 10:00etan Garibaitik irtengo dira, eta 20:00etan izango dira bueltan. Derrigorrezkoa izango da izena ematea, eta epea amaitzear dago. Interesatuak 5 euro ordaindu beharko dituzte.

Eguaztenean, hilaren 6an, berriz, film emanaldia eta askari-afaria egingo dute AEDko tabernan. Gura duten gazte guztiak joan ahal izango dira.

Eguenean, hilaren 7an, mendi buelta egingo dute eta Udalan askaria egingo dute. Txatxilipurditik irtengo dira, eta horretarako ere eman beharko dute izena, eta 5 euro ordaindu. Hilaren 8an, berriz, San Ferminetara joango dira. Goizean irteten eta gauaz bueltatuko dira.

**Euskal Herria Zuzenean jaialdi arrakastatsua**

Gaurtik, hilaren 1a, domekara arte, Euskal Herria Zuzenean jaialdi erraldoia egingo dute Mendiko-Landan (Zuberoa). Aurtengoa hamargarren edizioa da, eta izen handia hartu du.

Azkeneko zazpi urteotan Arrasateetik hainbat gazte joan dira laguntzera, lehenengo Txatxilipurdirekin eta azken urteotan AED Gazteak taldearekin. Honako hau irakurri orduko, hainbat gazte joanak izango dira lan egitera.

Dena dela, ekitaldiak ikustera joateko ere oso jaialdi interesgarria da. Mota askotako ekintzak egiten dituzte, eta horien artean musika da protagonista.

Asteburuan, besteak beste, honako taldeek esku hartuko dute: Che Sudaka, Maceo Parker, Skunk, Zea Mays, Mal de Ojo, Bikini Machine, Niko Etxart, Sinclair, Svinkels, eta abarrek. Hau da, rocka, funka, musika elektronikoa, batukada eta hip-hop doinuak joko dituzte.

## ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA IRAILEAN BARNETEGI IREKIA

NON: UDALAKO INGURUGIRO ESKOLAN

NOIZ: Bi aukera  
- A - Irailaren 5etik 9ra.  
- B - Irailaren 12tik 16ra.

ORDUTEGIA:  
Astelehenetik ostegunera 08:30 - 17:30  
Ostiralean 08:30 - 15:00

Guztira 42'5 ordu, honela banatuta:

- 08:30etik 13:00etara eskola  
- 13:00etatik 14:00etara bazkaria  
- 14:00etatik 17:30era kanpo ekintzak

Goizeko eskolek arratsaldean egingo den ekintzarekin lotura izango dute. Ikasle bakoitzari, daukan mailaren arabera, ekintza hori ongi egiteko behar dituen euskarriak emango zaizkio.

ZENBAT: 100 euro (matrikula, ekintzak eta jatorduak barne)

MATRIKULA EPEA: uztailaren 1etik 15era

BULEGO ORDUTEGIA: 10:00 - 14:00

HABEren diruagintza:	<b>ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA</b> Arimazubi plaza 2 (Eskola Politeknikoaren ondoan) 20500 ARRASATE Tel.: 943 79 70 77   Faxa: 943 79 91 43   euskaltegi@arrasate-mondragon.net	<b>UDAL</b> EUSKALTEGIAK
	www.udaleuskaltegiak.net	

Aretxabaleta | Arrasate | Beasain | Bergara | Deba | Eibar | Elgoibar | Errenteria | Eskoriatza | Hernani | Hondarribia | Irun | Lasarte-Oria | Legazpi | Mutriku | Pasaia | Tolosa | Urretxu-Zumarraga | Zarautz

SÍO...  
BAI?

## Erantzuna Udal Euskaltegian

23 urte / 43 zentro /  
maila guztiak /  
Ordutegi zabala /  
Bekak / HABEko diplomak ...



# Edertasun gida



**ILE APAINDEGI MISTOA**

**ilaran**

Zerrajera 1.  
Tel.: 943 79 81 79

Ordutegia: 09:30-12:30 14:30-19:30 / Barikuetan ez dugu etenik egiten eguerdian  
zapatuak: 08:00-14:00

**AUSART**

Ile apaindegi mistoa  
Estetika zentroa  
Txaro Carrizo

Iturrutz kalea 24. Tel.: 943 77 30 60  
943 77 21 58

ILEAPAINDEGIA

**ILEA**

UNISEX

Ferrerias 14 - 943 79 87 62

*Lore*

Olarte 10 • ARRASATE • 943 79 52 50  
Lurrindegia eta estetika zentroa

EZETZASMATU



UBANE MADERA

Zein izen du argazkian ikusten duzuen zubi horrek?  
Arrastoa: izen bera dute mendian ibiltzen diren animalia batzuek.

**Super BM**

Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**  
ARRASATE PRESSERA!

**Skip detergentea**  
36 ontzitxo+5 doan

**9,49€** 1.579 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**SUSANA BERMEJO**rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Susana!  
Galderen erantzun zuzena:  
**Maiatzaren Bata plazan.**

ERRETRATUZHARRA

**Galiziara joan eta itsaspekoa aurkitu**

**S**an Juan Bautista parrokiako abesbatzak Galiziara bidaia egin zuen bateko argazkia utzi digute oraingo honetan. 1962an egin zuten bidaia hura. Oporretara joan zirela kontatu digu gure berriemaileak. Halaber, abesbatzakoa ez izan arren, hura ere (Jose Ramon Urtzelai) eurekin eraman zutela oporretan. Lagun mordoarekin joan zen, gainera, 40 bat lagun bai behintzat, den-denak gizonezkoak. Gure berriemaileak kontatu digu egundoko giroa izan zutela bidaiari, abesbatzakoek ondo berotu zituzten eta eztarriak, bidean abestu eta abestu.

Jose Ramon Urtzelaik gogoan du autobusez joan zirela Galiziaraino, poliki-poliki. Hain poliki, Kanpanzarren kamioi batek autobusa aurreratutik egin zuen; eta are gehiago, aurrerago, bizikletan zihozazenez ere aurreratzea lortu zuten arrasatearren autobusa. Hori gutxi balitz, gainera, aurrerago, Torrelavegan, autobusa matxuratu egin zitzaizen. Kontuak kontu, ordu



mordoa pasatu eta gero bada ere, iritsi ziren gure lagunak Galiziara. Han turismo egin zuten, hainbat leku bisitatu zituzten. Tartean, Coruña ere izan ziren. Eta hara zer aurkitu zuten portuan: II. Mundu Gerrako itsaspeko bat. Barrura sartzeko

baimena lortu eta hala egin zuten gure lagunak, itsaspeko bat ez dago eta egunero ikusterik. Bide batez, argazkia ere atera zuten, lagunei eta senideei erakusteko itsaspekoa.

Honako hauek dira argazkian azaltzen direnak: Jose Ramon Urtze-

lai, Juanito Untzueta, Karmelo Heriz, ezezaguna eta Eloi Urtzelai.

**Argazkia eta informazioa:** Jose Ramon Urtzelai  
**Urtea:** 1962.



**BERRIA**

**Volkswagen Caddy**



**Volkswagen Kombi**



**Volkswagen LT**



**Aire-poltsa**



**Hagunak (Ilantak)**



**Irrati bidezko nabigazio sistema**



**ESP**



**Ibilgailu Komertzialak**



**UDALAITZ S.L.**

Gipuzkoa etorbidea 36 • 20500 • ARRASATE  
Tel: 943 71 18 70 Faxe: 943 71 18 71

# Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2005eko uztailaren 1a

387. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 ARETXABALETA 20550 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarrri@goiena.com • Lege gordailua: SS378/94

## Urkulu urtegi inguruko bidea konpontzen hasi da Aldundia

MIRARI ALTUBE

Urkulu inguratzen duen bidean lanak hasi ditu Foru Aldundiak. Bidea asfaltatzea du helburu, eta bide batez urtegi bazterrak garbitu eta txukundu egingo dituzte. 600 mila euroko aurrekontua dute lanok, eta ezustekorik gertatu ezean abuztu hasierarako bukatuko dituzte.

Urkulu urtegi inguruan lanak egiten dabiltza. Hori horrela, bertako bizilagunek izan ezik debekatuta dago pasatzea.

### ASFALTATU ETA TXUKUNDU

Joan zen astean hasi zituen Urukulu lanak Gipuzkoako Foru Aldundiak. Urtegia inguratzen duen bidea berdindu eta asfaltatu egingo dute, Goroeta auzoko bidegurutzetik presara bitarteko zatia, hain zuzen. Horrez gain, bide bazterrak garbituko dituzte, pinudi inguruetako lurrik behe-bera egin ez dezaten behar den moduko horma egin eta arekak egokitu ere bai. 600 mila euroko aurrekontua dute lanok eta abuztu hasierarako bukatuko dituztelakoan daude.

Aipatutako txukuntze lanok bukatutakoan gimnasia egiteko gunea eta zenbait eserleku jarriko dituzte urtegiaren bueltan.

### APARKALEKU BI

Bestalde, edozein lekutan aparkatzen du jendeak Urukulun; hala, lanak amaitutakoan aparkaleku bi jarriko dituzte. Etxaluze baserri alboko bidegurutzearen inguruan bata eta Areantza auzoko bidegu-



DEIANE ARRIETA

Goroeta auzotik presara bitartean bidea berdindu eta asfaltatu egingo dute.

*Txukuntze lanak bukatzean gimnasia egiteko gunea eta eserlekuak jarriko dituzte*

rutzetik ezkerretara dagoena egokituta bestea. Ezin izango da beste inon aparkatu; ez hori bakarrik, automobilak ezin izango dira edozein lekutara pasatu. Udalaren eta Foru Aldundiaren helburua da oinez ibiltzeko gunea izatea, eta aparkalekueetatik harantz bertako

*Aparkalekuetan bakarrik utzi ahal izango da autoa; ezin izango dira edozein lekutara pasatu*

bizilagunak bakarrik joan ahal izango dira. Udaleko ordezkariak oraindik ez dakite zein eratarik murriztuko duten bidea, baina zerbait jarriko dutela bai.

Hortaz, oinez, bizikletan edo patinekin ibili gura duenak toki ezin hobea izango du Urukulu.

## Komertzioa biziberritzeko plana hasi du Udalak

M.A.

Kezkatuta dago Udala herriko komertzioarekin. Azken urteotan denda asko itxi dituzte, eta zerbait egin behar dela iruditu zaio. Hala, Donostiako Ikei enpresari ikerketa egin dezala eskatu dio. Lehenengo diagnostikoa egingo du hark, eta gero neurri zehatzak hartuko ditu biziberritzeko.

Komertzioa uneoro aldatzen dabilen sektorea da, eta kontsumitzaileen ohituren eta azken urteotan agertu diren komertzio handien menpe dago. Aretxabaletan, baina, asko egin du behera komertzioak: 1999an 71 komertzio zeuden; 2003an, ostera, 58. Datuon aurrean eta kezkatuta, Komertzioa Biziberritzeko Plana egin

dezala eskatu dio Donostiako Ikei enpresari Udalak.


### GALDEKETAK 200 HERRITARRI

Aipatutako planak bi fase izango ditu. Lehenengoan herriko komertzioaren gaineko diagnostikoa egingo dute, eta gero, komertzioa biziberritzeko neurri zehatzak proposatuko dituzte.

Diagnostikoa egiteko herritarren ohiturak ezagutu gura ditu Ikei, eta horretarako, galdeketa egingo dizkiete 200 herritarri. Bestalde, herriko merkatarien kudeaketa ezagutzeko dendari eta ostalaritzako langileei ere egingo dizkie galderak; 60ri, hain zuzen. Datozen asteotan egingo dituzte galdeketa, hortaz, inor ez dadila harritu norbaitek erosteko ohituren gainean galderak egiten badizkio.



200 herritarri eta 60 dendariri galderak egingo dizkiete hurrengo asteotan.



# GUUREA

T A B E R N A



Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

**FARMAZIENTXANDA**

ZAPATUA, 2  
FRAILE, Herriko Plaza, 10.. 943 79 21 99

DOMEKA, 3  
FRAILE, Herriko Plaza, 10.. 943 79 21 99

**TELEFONOAK**

**OROKORRAK**

Almen .....	943 71 49 07
ARETXAGAZETA .....	943 79 86 21
Faxa .....	943 77 18 54
Basotxo .....	943 77 09 81
Euskaltegia .....	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea .....	943 71 18 62
Industrialea .....	943 79 62 80
Institutua .....	943 79 79 00
Kirioi etxea .....	943 71 26 28
Kultura etxea .....	943 71 10 27
Gazteria saila .....	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola .....	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI .....	943 79 57 40
KZGunea .....	934 79 94 44
Liburutegia .....	943 71 18 62
Loramendi EE .....	943 77 09 70
Ludoteka .....	943 79 05 81
Mankomunitatea .....	943 79 30 90
Murruxko ME .....	943 79 93 74
Musika Eskola .....	943 79 36 50
Osasun etxea .....	943 71 19 59
Otalora .....	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) .....	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola .....	943 77 03 77
Postetxea .....	943 79 28 31
Basabeazpi Ikastola .....	943 71 21 18
Taxi geltokia .....	943 77 12 64
Udal Bulegoak .....	943 71 18 62
Udaltzaingoa .....	943 71 18 63
Urats Gain .....	943 79 99 11

**UDALTZAINGOA**

Arrasate ..... 943 79 14 39 |

**LARRIALDIK**

SOS Deiak .....	112
Eskualde Ospitalea .....	943 03 53 00
Ertzaingoa .....	943 79 71 99
Gurutze Gorria .....	943 76 55 76
Larrialdia .....	943 46 11 11
Suaitzaileak (Ornati) .....	943 78 28 00

**ELKARRIZKETA**

**IDOIA SANCHEZ, IRATI LEZETA ETA NAROA MARTINEZ/MARGOLARIAK**

*“Gure margolanen erakusketa egongo da udaletxe zaharreen bi asteen”*

M.A.

**G**aztetxoak dira, 11 urte besterik ez dute, baina dagoeneko hiru urte daramatzate margotzen. Idoia Elexpuru irakasleak margotzeko teknikak erakutsi dizkie, baita pinturarekiko maitasuna ere, igarri-igarrian dute.

**Noiz hasi zineten margotzen ikasten?**

Orain dela hiru urte hasi ginen Idoia Elexpurrekin, eta ordutik hona asteen behin etortzen gara; oso gustura etorri ere.

**Hiru urtean asko ikasiko zenuten, ez?**

Bai. Lehenengo, arkatzari zela heldu behar zaion erakutsi zigun Idoiak; gero, eskemak egiten, itzalak... Gero eta zailagoak dira margolanak, baina politagoak ere bai.

**Zer margotzen duzue?**

Denetik: paisaiak, animaliak, loreak... Hasieran marrazki sinpleak ziren, eta orain zailagoak; animaliak egitea, esaterako, zaila da, baina gustuko ditugu eta saiatu egiten gara. Margoak ere hainbat eratakoak erabiltzen ditugu: tenperak, olio-pinturak, manleyak... Tenperekin margotzen dugu gustura.

**Erakusketarik jarri duzue inoiz?**

Aratusteetan taberna bat apaintzeko eraman zituzten gure



M.A.

margolanak, baina besterik ez, hau izango da lehenengoa.

**Noiz eta non izango da erakusketa?**

Uztailaren 1ean hasi eta 16ra bitartean izango da, udaletxe zaharreen; aste egunetan 18:00etatik 20:00etara, eta zapatuetan, 12:00etatik 14:00etara.

**Erakusketa ikustera etor dadin animatuko zenuke jendea?**

Bai! Badakigu gurasoak eta lagunak etorriko direla, baina gainerakoak ere etor daitezela... Oso lan politak aurkituko dituzte eta bat baino gehiago geratuko da harrিতuta.

**LABUR**

**Tokiko Agendako foroa martitzenean elkartuko da**

Martitzenean, uztaileak 5, elkartuko da Iraunkortasun Foroa. Herriko gizarte eta ekonomia arloak aztertuko dituzte AMIA metodologiaren bitartez, hau da, aukerak, mehatxuak, indarrak eta ahuleziak esanda. Foroan parte hartu gura duena udaletxeko, ganbarara etor dadila, 19:00etan.

**Ikastaroak barra-barra uztaileako, KZgunean**

Gaur, egubakoitza, hasi eta uztaile bukatu bitartean hainbat ikastaro emango dituzte KZgunean: Internet ezagutzeko, posta elektronikoa erabiltzen jakiteko eta postalak zela bidali ikasteko, ardoa ezagutzeko eta beste horrenbeste. Euskaraz dira guztiak eta arratsalde partean egingo dituzte.

**Uztail eta irailean mezak esango dituzte auzoetan**

Abuztuan oporrak hartuko dituzte abadeek eta auzoetan ez da mezarik izango. Uztail eta irailean, ostera, bai: uztailean Galartzan esango dute 11:30ean eta Areantzan, 12:30ean. Irailean, berriz, Arkarazon, 11:30ean eta Gorroetan, 12:30ean.

**BASABE**

jatetxea


Basabe bidea z/g  
Tel.: 943 79 91 84  
Aretxabaleta



**Hirusta**  
Jatetxea

Ilargi plaza 4  
943 79 06 57  
ARETXABALETA

**Karlos**




Santa Kurtz 5  
Tel.: 943 71 25 54  
20550 ARETXABALETA

**Angelines**  
AUTOZERBITZUA

Frutan eta txarkuterian  
espezialitatea

Mitarte 16 • 943 79 61 42  
ARETXABALETA

**Jou Diaz**



Loramendi 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABALETA

**ZARAIA**  
**taberna**

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA • Tel.: 943 79 88 95

**GARBITU S. KOOP**

**Garbiketa**  
**orokorrak**

Errekabarren 3- Behea  
ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 01 28



**MAPFRE**  
Aseguroak

Errekabarren 3  
Aretxabaleta  
Tel.: 943 77 11 76

# Eskoriatzarrak dira Errasti anaien aurkariak finalean

M.A.

Debarroko Pilota Txapelketako finala Leintz bailarako pilotarien artean jokatuko dute. Errasti anaiek eskoriatzarrak izango dituzte aurkari uztailaren 9an, Itziarko pilotalekuan. Zazpigarren finala da aretxabaletarrendako eta bosgarren aldiz izan gura dute txapeldun.

Txapelketa polita egin dute Errasti anaiek eta joan zen astean finala jokatzeko sailkatu ziren. Elgoibarko bikotea izan zuten aurkari eta 11-22 irabazi zieten Elgoibarren bertan. Gero Aretxabaletara etorri behar zuten bueltako partidua jokatzera, baina eskuan min hartuta zeudela eta ez ziren agertu. Hain zuzen, Elgoibarko bikote horren aurka galdu zutelako ez ziren sailkatu Lasagabaster eta Altzola.

## FINALA UZTAILAREN 9AN, ITZIARREN

Zazpigarren finala jokatu dute Errasti anaiek, eta irabaziz gero bosgarren txapela jasoko dute. Iaz bergarrei irabazi zieten eta aurtun eskoriatzarrak izango dituzte aurrez aurre, Errartek eta Iñurategik osatutako bikotea. Finala ikusi gura duenak uztailaren 9an, zapatua, du hitzordua Itziarko pilotalekuan, 17:00etan.

Errasti anaiek dagoeneko 32 urte dituzte, baina oraindik pilotan jokatzeko jarraitzeko asmoa daukate. "Gorputzak erantzuten dien bitartean eta aurkariak barregarri uzten ez dituzten bitar-



Txapelketa polita jokatu ostean uztailaren 9an finala jokatu dute Errasti anaiek.

tean jarraitu egingo dute txapelketetan", esan zuen Juan Mari Errasti aitak.

## DATORREN URTEAN ARETXABALETAN

Debarroko Pilota Txapelketa Aretxabaletan sortu zuten, eta hasieran Aretxabaletan bertan bakarrik jokatzeko asmoa zuen. Arrakastaren aurrean Debarroko gainerako herriak ere sartu ziren antolakuntza lanetan, eta orain, urtean

herri batek antolatzen du. Aurtun, Debarro izan du txapelketaren ardura, eta finala Itziarren jokatu dute, Debarro ez duelako pilotaleku egokirik. Datorren urtean Aretxabaleta izango da antolatzaileria. Herrian bertan azken urteotako txapeldunak izanda txapelketa zirrargarria izango da, eta gainerako bikoteek ere gogoz jokatzeko arrazoi bikoitza izango dute.

## LABUR

### Datorren denboraldia aurkeztuko du UDak gaur egingo duen batzar orokorrean

Aretxabaleta Kirol Elkarteak, UDak, ohiko batzar orokorra egingo du gaur, uztailak 1, 18:30ean, udaletxe zaharrean. 2004-2005 denboraldian gertatutako gorabeheren eta diru kontuen berri emango dute lehenengo zuzendaritza batzordeko kideek, eta datorren denboraldia aurkeztuko dute ondoren. Aurrekusi dituzten diru kontuak ere eramango dituzte bazkideen aurrera eta guztien artean onartu beharrekoak izango dira. Kirol Elkarteak zuzendaritza batzordeko kideek bazkide guztiei egiten diete dei batzarrera joan eta euren iritzia eman dezaten.

### Capoeira ikastaroa hasiko dute datorren astelehenean, Gazte Ekimenak antolatuta

Capoeira ikastaroa antolatu du Gazte Ekimenak Udalaren laguntzarekin. Astelehenean, uztailak 4, hasi eta hilaren 20a bitartean emango ditu eskolak Igor Ezpeleta eskoriatzarrak. Udaletxe zaharrean izango da ikastaroa, astelehen eta eguaztenetan, 17:00etatik 19:00etara bitartean. Domeka arte dago zabalik izena emateko epea, 3 euro ordainduta; horretarako Ezkutu tabernara jo.

Brasilen jatorria daukan arte martziala da capoeira. Musika garrantzi handia dauka, jokoak markatzen duelako bi lagun arteko lehia. Giro alai eta era berean lehiakorren sortzen da capoeira egiten dutenen artean.

### Ehun gaztetxo baino gehiago ibiliko dira Kirol Zerbitzuek eskaintako ikastaroetan

Astelehenean hasi zuten Udaleko Kirol Zerbitzuek gaztetxoei eskaintako udako kanpaina. Dagoeneko 106 lagunek eman dute izena, baina gehiago izango dira guztira; izan ere, uztailaren 11n bigarren txanda hasiko da eta oraindik eman dezakete izena kirola egin gura duten ume eta gaztetxoek. Horretarako kirol etxera deitu besterik ez dago, 943 71 26 28.

Aurtun hiru kirol-sorta eskaini dituzte Kirol Zerbitzuek, eta horietatik bik egin dute aurrera: 10 lagun dabilta igeriketa egiten psikomotrizitatearekin batera eta 20 multikirolean. Multiabenturari dagokionak ez du egin aurrera, oso gazte gutxi eman duelako izena. Bestalde, 4 eta 7 urte bitarteko 12 lagun dabilta igeriketan, eta 8 eta 11 bitarteko 6. Tenisean zela jokatu ikasten 27 gaztetxo hasi dira, golfean 6, patinen gainean ibiltzen 15 eta aerobik egiten 10.



FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea  
ARETXABALETA  
Tel.943 77 00 33/79 42 56

Mobiliario  
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

Jauregi  
Okindegia

Otalora 10  
Tel.: 943 79 57 47  
ARETXABALETA

IRIARTE

Umeen  
denda  
Helduen  
lentzeria



Durana 8  
Tel.: 943 79 10 96  
ARETXABALETA



Matikua  
jatetxea

Azatza auzoa  
ARETXABALETA  
943 79 16 68

**REGIANDO**  
OPTIKA

Loramendi 10 Tel.: 943 79 98 21

Zure eguzkitako  
betaurrekoak graduatuta **65€** tan





## ATREBENTZIAEZPADA/ Opor luziek dauketzu aurrien, ze egingo dozu? Ibilliko zara Udaleku Irekixetan?



**JON ANDER BARBERO**  
13 urte



**MAIALEN OTXOA**  
4 urte



**JULEN URRETA**  
7 urte



**ALBA ETXEANDIA**  
8 urte



**IBAN GARCIA**  
13 urte



**ELENE ERRASTI**  
5 urte

Igerilekure fango naz Arrasatera eta lagunekin hara eta hona ibilli kalien. Ez naz faten Udaleku Irekixetara, baiñe horregatik ez naz aspertuko. Abuztuen Burgo-sera fango naz gurasuekin.

Amai lagunetan dutzet oporretan, eta astelehenien Udaleku Irekixetan hasiko naz. Oso ondo pasetan dot, nere lagun gehixenak egoten dielako, eta eskulanak egittie gustetan jat gehixen.


Jolas egitten dot oporretan. Udaleku Irekixetara be fango naz urtero moduen. Oso ondo pasetan dot bertan, San Fermin egune dala, eskulanak diela... Beti egoten dalako zeozer egitteko.

Lagunekin ibiltten naz kalien eta Udaleku Irekixetan hasiko naz gero. Aurten, gaiñera, Goñire noie udalekuetara. Gero abuztuen Cambrilsera fango naz gurasuekin.

Lagunekin ibilliko naz egunero: bizikletan, Urkulure fan, bero badau igerilekure... Kirol etxeko eskaintzarik ez dot hartu, lanak dittudalako egitteko. Abuztuen Torreviejera fango naz.

Amamai lagunetan dutzet lantxuek egitten eta jolas be egitten dot. Udaleku Irekixetan ibilli nitzen igez, eta aurten be fango naz, ondo pasau neuelako lagunekin jolasien.

### TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK ETXAFUEGO LARREGI** Zoritzarrez etxafuegoak protagonista diren data batzuk ditugu egutegian. Antzinako usadioa edo herriko kulturari dagokion ohitura izan beharrea ahoz aho dabilena, etxafuego hotsak eta apurketak izaten dira kaleko berbagai. Etxafuegoak bota behar badira bota, baina neurritz eta behar den tokira; ala disgusturen bat izan behar dugu ikasteko? / M.A.

### ORAINDELA3URTEARETXABALETAN

Urkulura bidegorria egitea onartu zuen Udalak

Bainuetxetik Urkulun dagoen Iraban baserri alboraino doan bidegorria egitea onartu zuen Udalak. Uztailean bertan kaleratu zituzten lanak egiteko oinarriak, uda aprobetxatu gura zutelako. 120.000 euroko aurrekontua izan zuen eta hilabete bi behar izan zituzten egiteko.



### ASTEKODATUA

7

#### IZANGO DIRA ERRASTI ANAIEK JOKATUTAKO FINALAK

Errasti anaiek Debarroko Pilota Txapelketako finala jokatu dute uztailaren 9an. Zazpigarren finala dute, eta jokatuaketatik lau irabazi dituzte. Oraingoan eskoriatzarrak dituzte aurrez aurre.

### BESTEKEKESANA

**“ Lanak auzolanean egiteko ideia mantendu egin behar dela uste dugu. Jendeak, berak parte hartzen**

**badu zerbait sortzen edo konpon-tzen askoz hobeto zainduko du edo estimatuko du erabiltzeko orduan, norberak egindakoa delako. Elkarlana bultzatzen du, gainera, auzolanak eta beste giro bat sortzen du; horregatik hain zuzen erabaki genuen hala egitea.**

**Zelaia bera nahiko txikia da eta belar luzearekin eta sasiz beteta egon da beti. Aspalditik zegoen konpontzeko ideia eta Monterronen dagoen antzeko anfiteatroa, baina taina txikian egin gura dugu, eskailera antzeko batzuk eginda. Herritar guztiendako egongo da zabalik gero; baldintza bakarra antolatutako ekintzak euskaraz izatea.**

**LEIRE LARDIZABAL**  
Arrasate Irratia/05-06-22

### HERRITARRENBERBAK/ Aitor Agiriano



*Travel puntuek balioko dute?*

**T**rafikoko isunak jasotzea eta ordaintzea ez da berria eguzkiaren azpian. Eta gida baimenik gabe ere, pasa izan dugu denboraldixoren bat zenbaitzuk. Kulparik gabe, baina. Nik uste.

Aurtengo udak ordea, orain artekoek ez bezalako txingor zaparrada gogorrek dakartzat; katiuskak jantzi beharko ditugu puntuetan oinarritzen den “isun sistema” berrian ez itozteko. Aurrerantzean euro batzuk ordaitzearekin ez gara libratuko.

Gidari guztiak eta bakoitzak, puntu kopuru bana izango dugu. Hala, trafikoko lege hausteren bat eginez gero puntuak kenduko dizkigute. Zenbat eta larritasun maila altuagoa okerrak, orduan eta puntu kopuru handiagoa galduko dugu. Modu horretan bat ere gabe gera gintezke eta gida baimena ken liezagukete berrero ateratzera behartzeraino. Harrapa ezak hori, txo! Esan bazuten, esan zuten.

Legea indarrean jarriko dute. Frantzia aldean hala omen dabilta jadanik; puntuak behera eta puntuak behera! Ez... Zakua betetzea, noski, posible bada. Denboraldi jakin batean zuzen gidatzearen truke berreskura genitzake batzuk. Gaitz erdi. Gainera, dirudienez,

**“Zentzuzkoagoa deritzot norberak bere segurtasunagatik gehiago begiratzeari, eta ez da asko kostatzen”**

emaitza onak ematen ari da. Istripu kopuruak eta heriotzak meaztu baitira frantsesen artean.

Azkenean, hemen ere, helburua hori da, nahiz eta triste den halako neurriak hartu beharra egotea

errepideetako istripuak ekiditeko. Zentzuzkoagoa deritzot norberak bere segurtasunarengatik gehiago begiratzeari. Ez da asko kostatzen sarritan mantoago gidatzea, soseguz. Baina, badakigu... Burua, betikoan, txapela erabiltzeko.

Zuetako askoren moduan, goiko galdera hori bera egin diot neure buruari, eta e! Lepoa behintzat ez nuke jarriko ezezkoaren alde.

Aretxagazeta

Durana 11  
20550 ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 86 21  
Faxa: 943 77 18 54  
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA  
Mirari Altube

ERREDAKZIOA  
Mirari Altube

MAKETAZIOA  
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA  
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA  
55-378-94

ISSN  
1134-2609

TIRADA  
3.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala

# Ze barri?

ESKORIATZA / Egubakoitza / 2005eko uztailaren 1a / 215. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Iker Barandiaran • Otolara 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

## EAJ-EAk PSE-EEren hainbat mozio atzera bota zituen, eta tirabirak izan zituzten

IKER BARANDIARAN

Udalbatzarrak hainbat mozio onartu zituen (Dorletan egin beharreko lanak, lokalak etxebizitza bihurtzeko ordenantzen aldaketa, Euskarako teknikariaren lan jarduna luzatzea...), baina PSE-EErenak atzera bota zituen. Autobidea ere izan zuten berbagai.

Eguenean hainbat mozio eztabaidatu zituzten. Horien artean, EAJ-EAk, PSE-EEk eta EBk aurkeztutakoak. EAJ-EAk kontrako botoa eman zien PSE-EEko mozioei, eta mozio alternatiboak aurkeztu zituen. Horrek Iñaki Pierrugesen haserrea piztu zuen eta EAJko Josu Ezkurdiarekin ika-mikak izan zituen.

### DORLETA BERRIRO URBANIZATU

Udalbatzarrak Dorleta auzoa berriro urbanizatzeko proiektuaren hasierako onarpena egin zuen. Uztailean lanean hasi gura dute. Horren harira, alkateak azpimarratu zuen ailegaeraztasun plana dela eta, etxabeak dituzten auzotar batzuk haserre daudela, ezingo dituztelako garaje moduan erabili. Bestalde, udalbatzarrak onartu zuen lokalak etxebizitza bihurtzeko ordenantza aldatzea. Espekulazioari aurre egiteko, eros-



Osoko bilkuren aretoa leporaino bete zuten herritarrek. Autobidearen gaineko kezka zuten, eta horixe eztabaidatu zuten.

leekin hitzarmenak egin, eta gehieneko salneurriak finkatuko dituzte. Horrez gain, ontzat hartu zuten Euskara teknikariaren lan jarduna luzatzea Euskara Biziberritzeko Plana bultzatzeko.

### PAPER EKOLOGIKOA ETA GAYAK

Iskanbila beranduxeago izan zen. PSE-EEk bi mozio aurkeztu zituen:

*Udalbatzarrak bat egin zuen autobideko lanek kaltetutako herritarrekin*

bata, Udalak barne eta kanpoko erabileran paper ekologikoa erabil dezan; eta bestea, Udalak gay eta lesbianen alde egin dezan. Lehenengoan, EAJ-EAk aditzera eman zuen PSE-EEko bozeramaile Pierrugesekin haserre daudela, Ingurumen Saileko presidentea den arren, ez delako batzarretara joaten. "Gaurko mozioa propaganda

politikoa da, eta kontra bozkatu dugu", azpimarratu zuen EAJko Josu Ezkurdiak. Hortaz, mozioa atzera bota zuten, PSE-EEk, EBk eta Elizateetako ordezkariak alde egin zuten arren. Azken bi talde horiek honako hau eman zuten aditzera: "Proposamena interesgarria da, eta ez dugu uste EAJ-EAren jarrera egokia denik".

Gay eta lesbianen aldeko mozioari dagokionez, EAJ-EAk atzera bota zuen, "Gasteizko legebiltzarrean PPK PSE-EEri babesa eman diolako". EBk eta Elizateetako ordezkariak mozioa babestu arren, ez zen onartu. Elizateetako Javier Villarrek zera eman zuen aditzera: "Konponbidea aurkitzeko bideak aurkitu behar ditugu. Horrela ez gabilta ondo". Azkenean, EAJ-EAren mozio alternatiboa onartu zuten.

### BIDEGIREKIN OSO HASERRE

Osoko bilkuren aretoa goraino bete zen. Izan ere, herritarrek oso haserre daude Bidegirekin, autobideko lanen ganean ez dituelako informatzen, eta aldaketak egiten dituelako. Udalbatzarrak Bidegiri idatzi bat bidaltzea adostu zuen, eta honakoa azpimarratu: Bidegiri agindutako batzarrak egiteko eskatzea, eta Udala Apotzagan egin gura duten hondakindegien kontra agertzea, hain zuzen.

## Ibarraundi museoaren inaugurazio ofiziala, eta turismoari bultzada

I.B.

Ibarraundi museoaren inaugurazio ofiziala egin zuten astelehenean. Ibarreko udaltako, Aldundiko eta Jaurlaritzako ordezkariak museoaren erakutsi zieten, baita ere turismorako prestatu dituzten gailuak.

Ibarraundi museoak merezitako inaugurazioa izan zuen. Lehenik eta behin alkateak eta Udaleko Turismo Saileko Juan Luis

Merinok Ibarraundi proiektuaren sorrera eta horren abiapuntu izan zen Natur Eskolaren ibilbidea azaldu zuten. Horren ostean, Gorka Etxabek Arteman enpresak egin duen ikus-entzunezkoa aurkeztu zuen. Ikus-entzunezko horrekin batera, triptikoak ere sortu dituzte. Biek eskema bera dute: bisitariak labor eta argi azaltzen dizkiete Ibarraundi zer den, Eskoriatzan zer ikus dezaketen, eta Debagoienan zer turismo eskaintza duten.

### ISABEL GURIDIRI, OMENALDIA

Horren ostean, Leire Parra Udaleko langileak Ibarraundi museoaren webgunea aurkeztu zuen, eta gune horrek dituen aukerak erakutsi zituen.

Ekitaldiarekin bukatzeko, Museo Eskolako arduradun izan den Isabel Guridiri omenaldia egin zioten: dantzariak eta txistulariek esku hartu zuten; museoan jarri duten plaka bat desestali egin zuten, eta alkateak urrezko oroigarri bat eman zion.



Museo Eskolako arduradun zen Isabel Guridik museoaren erakutsi zuten bisitariak.

**TELEFONOJAKINGARRIAK**

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Guruzte Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaingoa (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Orñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

**OHARRAK**

**1955EAN JAIOTAKOEN IBILALDIA EGINGO DUTE**

1955ean jaiotako eskoriatzarrek ibilaldia egingo dute irailaren 24an. Tokia ez dute oraindik zehaztu, baina ziurrenik Bizkaiko kostaldera joko dute. Interesatuek uztailaren 15a aurretik 50 euro ordaindu beharko dituzte. Horretarako, kontu korrante bat zabaldu dute Euskadiko Kutxan.


**4X4 IBILGAILUEN I. KONTZENTRAZIOA APOTZAGAN**

Datorren zapatu eta domekan, hilaren 9an eta 10ean, 4x4 ibilgailuen kontzentrazioa egingo dute Apotzagako hondakindegian.

**AXTROKIRENAGENDA**

**'ASTELEHENEN GOIENKARIA'-REN HARPIDETZAN BEHERAPENA**

Axtrokiko bazkideek 5,50 euroko beherapena izango dute *Asteleheneko Goiienkaria*-ren harpidetzan. Deitu honako telefono zenbakira: 943 76 92 70.



AINTZANE AGIRRE

Astebururako hainbat ekintza antolatu dituzte Kultura Sailak eta gazte batzarrak.

**Antzinako autoak, Euskal Jaia eta Koadrilen Eguna**

IKER BARANDIARAN

**San Pedro jaiak ez dira bukatu, eta kartutxo asko gelditzen dira erretzeko oraindik. Horren erakusle da gaur, egubakoitza, Euskal Jaia egingo dutela; eta bihar, zapatua, gaztetxeko batzarrak sortutako Koadrilen Eguna. Horrez gain, domekan, antzinako autoen erakustaldia egingo dute.**

Eskoriatzarrek gogoz ospatu dituzte orain arteko jaieguna eta berez gaur bukatuko dituzten arren, herriko hainbat elkartetek jaiak luzatzeko ahalegina egiten dihardute.

Gaur, egubakoitza, egun handia izango da herrian, herritar askoren esanetan, jaietako egun politena. Orain dela 8 bat urte sortu zuen gazte batzarrak, eta handituz joan da, ezinbesteko hitzordu bilakatu arte. Eguerdian, Gorosarri plazan euskal dantzak egingo dituzte; ordu berean, talogileak eta sagardo kupelak eramango dituzte herriko plazara. Giroa alaitzeko, Izar eta Alabier trikitilariak esku hartuko dute. Hori guztia gutxi balitz, txikie-

nendako artzainen jolas eta jokoa antolatu dituzte.

Jarraian, 14:30ean, herri bazkaria egingo dute Gorosarri plazan. Aurten ere 350 bat lagun izango dira mahaiaren bueltan. Horren ostean, arratsaldean eta iluntzean, ez da atsedenek izango: euskal preso eta errefuxiatuen aldeko kalejira txaranga eta guzti; Tapia eta Leturiarekin dantzaldia, eta abar.

**KOADRILEN EGUNA INDARTU**

Gazte batzarrak jaiak luzatu eta koadrilen esku-hartzea bultzatu gura du. Horretarako, Koadrilen Eguna sortu du. 15:00etan, Kontzejupeko III. Esku-pilota Txapelketa egingo dute. 17:00etan, koadrilen arteko kirolak eta jokoa egingo dituzte, eta taberna mugikorra ere izango dute lagun. 19:00etan, berriz, perkusio kontzertua egingo dute; eta 22:30ean, rock kontzertua herriko plazan.

**ANTZINAKO AUTO DOTOREAK**

Etzi, domeka, antzinako auto dotoreen erakustaldia egingo dute. Egun osoan, Triumph, Citroen 11 Liger, Ford T, 600 eta bestelako erruberadun altxorrek ibiliko dira bueltaka herrian.

**Zirkulazioa arautzeko ordenantza gogorragoa**

I.B.

**Astelehenean, uztailaren 4an, Udala hasiko da herrian zirkulazioa arautzeko ordenantza berria ezartzen. Hemendik aurrera, besteak beste, herriko kale nagusienetan ezingo da gelditu, eta udaltzainek jarritako isunak Eusko Jaurlaritzako Zirkulazio Sailak bideratuko ditu.**

Udalak aspalditik zeukan zirkulazioaren araudia gogortzeko asmoa. Dagoeneko egin du ordenantza berria, eta astelehenean, uztailaren 4an, jarriko dute indarrean. Ordenantza horrek hainbat aldaketa eragingo die eskoriatzarrei. Besteak beste, udaltzainek

jarriko dituzten isunak Eusko Jaurlaritzako Zirkulazio Sailak bideratuko ditu, eta orain jartzen dituztenak baino garestiagoak izango dira.

**KALE NAGUSIENETAN EZIN GELDITU**

Udalak aditzera eman du hemendik aurrera ezingo dela herriko kale nagusienetan gelditu. Hona-ko hauetan, hain zuzen ere: Aranburuzabala, Arana eta Gaztainadui kaleetan, Aingeru ibilbidean eta Intxaurtxueta kaleko lehenengo sei zenbakietan.

Horrez gain, Udalak azpimarratu du uztaileko lehenengo astean ez dituztela isunak Jaurlaritzara bidaliko. Horren helburua da herritarrek izan ditzaketen zigorrak gogorrez jabetzea.



I.B.

Udalak laster aparkalekuak jarriko ditu Santa Anan. Argazkian, Dorletakoak.



**Harriak jausi dira autobideko lanetik**

Astelehen arratsaldean autobideko lanetatik lau harri handi eta haritza baten enborra jausi ziren. Apotzagako bidetik San Pedro parkera heldu ziren. Zorionez, orduan ez zegoen inor parkean eserleku bat txikitu egin zuen harri batek eta enborra, zazpi zuhaitz txikitu ondoren, gelditu egin zen. Lurzoruaren jabe Imanol Madinabeitiaren esanetan, zuhaitzek enborra gelditu ez balute, beheko etxeetaraino jausiko zen. Martitzen arratsaldean kendu zituzten harriak eta enborrak. /I.B.


**AZKOAGA**

**ESTANKOA**

943 71 48 77  
Zure Zerbitzura



**MIRENTXU TABERNA**  
Kafe goxoa hartzeko  
Tel.: 943 71 41 67



*Gustora egoteko!*  
Intxaurtxueta 8  
**ESKORIATZA**  
943 71 40 63

# Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko uztailaren 1a / 157. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

## Aramaioko euskara aztertu eta tesi moduan aurkeztu du Txipi Ormaetxeak

UBANE MADERA

Aramaioko euskararen azterketa dialektologikoa egin eta aurkeztu du Txipi Ormaetxea irakasle eta filologoak. Urte askotako lanaren emaitza da. Tesi moduan aurkeztu du, Gasteizko Filologia Fakultatean, eta bikain *cum laude* eman diote.

“Beti pentsatu izan dut Aramaioko euskara aztertu egin behar dela”.

Azken 20 urteotan izan du pentsamendu hori buruan Txipi Ormaetxeak. Eta burutazioa burutu egin du orain, bere tesiarekin. Izan ere, aramaioar jatorriko arrasatearra da Txipi Ormaetxea: “Bihotza eta gogoa Arrasate eta Aramaio artean ditut”. Eta Araban euskaraz bizi den herri bakarrenetarikoa bere bihotzeko Aramaio izanda, hango euskara aztertzeko gogo bizia betidanik izan duela kontatu digu Gesalibarko filologoak.

Hain zuzen ere, 1996an hasi zen Aramaioko euskararen azterketa dialektologikoa egiten. “65-70 urteko gorako bertako zenbait hiztun elkarrizketatu ditut, eta ondoren,



Txipi Ormaetxea Aramaioko Bañera parkean, euskararen azterketa egiten ibili zeneko batean.

jasotako materiala aztertu dut, honelako beharretan bereizten diren atalak landuz: fonologia, izenaren morfologia, sintaxia eta lexikoa”. Adinekoen euskara aztertu du, “euren euskara naturalagoa dela uste dudalako”.

Hala, hori guztiori liburu eran aurkeztu zuen 2002an. Orain, liburu hartan argitaratutako lana osatu egin du, gauza berriagoekin; eta lehen esandako moduan, tesi moduan aurkeztu du, Gasteizko Filologia Fakultatean.

### BOST ADITU EPAIMAHAIKIDE

Hain zuzen ere, Koldo Zuzazo dialektologoen zuzendaritzapean egin du tesia eta bost adituren aurrean aurkeztu du: Patxi Goenaga (irakaslea); Gotzon Aurrekoetxea (dialektologian aditua);

Iñaki Gaminde (dialektologian maisu); Patxi Salaberri Zaratiegi (euskaltzaina eta toponimian aditua) eta Jean Baptiste Coyos (ikertzaile zuberotarra).

### AZTERKETAREN EMAITZAK

Kontatu digunez, besteak beste, bere tesiak erakutsi du Aramaiokoa mendebaldeko euskara dela (lehen bizkaiera esaten genion horri, nahiz eta ez izan bizkaiera %100ean). Eta ez duela alde handirik Leintz bailarako gainerako herrietan erabiltzen den euskararekin. Salbuespena Oleta da. Arangio eta Orixol daude erdian, eta horren ondorioz, Oletako euskara desberdina da.

### EUSKARA ONA DUGULA

Horrez gainera, hemen inguruan berba egiten dugun euskararen gaineko mito bat kendu egin behar dugula nabarmendu digu Txipi Ormaetxeak: “Aramaioko, Arrasateko, Aretxabaletako... euskara ona da; ez da gainerakoa baino hobea ezta okerragoa ere, ona da, beste barik. Aramaiokoren kasuan, zoragarria da gorde dituelako gipuzkerak baino arkaismo gehiago, esaterako. Euskara zaharragoa ematen du”.

## HERRITARRENHITZA/Manex Agirre • Ikaslea

### Apologia

Testu hau apologia egiten duen testu bat da. Ez besterik. Hobe intentzioak hasieratik garbi adieraztea. Hitz batek edo bik milaka irudik edo argazkik baino gehiago adierazi lezakete batzutan. Apologia, eta beste ezer ere ez.

Bigarren urtea segidan, eta aurreko urteko zorionak eta eskerronak oraindik belarrietan burrunbaka ditu gazte asanbladak (izan baldin baziren ere ez ginen enteratu). Zer nahi duzue esatea, aurreko urteko jaiek azken urteetako kalitate apur bat jaso dutelakoan nago. Ez duenak horrela pentsatzen begira dezala berriro lehendabiziko parrafoa. Apolo-

gia egiten ari naiz.

Zazpi euskal herrietako gainontzeko eskualde eta komunitateetan ez dut uste askoz ere kasu gehiegi egongo direnik Aramaion gertatzen denaren antzekorik. Gauzak ondo egitearen eta ekimen bat aurrera eramatearen ereduak garelako pentsatzen dut. Asanblada formako egitura horizontal batek arrakasta eduki dezakeela erakutsi dugula uste dut. Eta gaur egun baieztapen kolosalak



“Ezin duzue imajinatu zeinen harro gauden”

egiteko ohitura dagoela kontutan hartuta (Atxaga nobel sarirako proposatzen duen horri buruz ari naiz), hori nire baieztapen kolosal apologetiko propioa: eredu bat gara edozeinentzat, kagoendio.

Festak gaztea behar du izan, eta gazteak festazalea behar du izan (ez gaur egun dugun festaren kontzepzioan bakarrik, edozein divertimento motatan baizik), eta festak aldaketa dakar,

barregura, ironia, gauzak beren oreka normaletik ateratzea. Hori guztia gustatzen zaigu, eta horregatik egiten dugu. Egongo dira azken momentuko haserreak eta arazoak. ATGak azken hilabeteetan daraman dinamika ikusita ez dut uste gehiegizkoak izango direnik. Hasi liburu-azokatik eta gazte eguneraino txanpain kortxoa bezala doa kontua. Uztailaren lehenengo egunean egingo du PLOP!, eta guztiok gurekin PLOP! egitera animatzen zaituztegu.

Ezin duzue imajinatu (batzuk ezin duzue onartu) zeinen harro gauden gure buruaz.

## LABUR

### Eguaztenean hasiko dituzte udalekuak

Datorren hilaren 6an hasi eta 19ra arte udalekuan ibiliko dira Aramaioko 80 bat neska-mutiko. Antolatzaileek gogorra ekarri nahi diete guztiak hitzordua eguaztenean dela. 10:00etarako Bañera parkean. Auzoetan bizi diren umeek garraioa izango dute Ibarra-rako joan-etorria egiteko. Bederatzi begirale ibiliko dira umeak zaintzen, guztiak ere Ana Muñoaren gidaritzapean. Hain justu ere, oraingo astean ibiliko dira haiek udalekuetarako egitaraua prestatzen.

**TELEFONOJAKINGARRIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIAK**

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Erzaizntza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zubiako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzailleak (Zubillaga)	943 78 28 00

**AUTOBUSORDUTEGIA**

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

**OHARRA:** izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

**OHARRAK**

**ARRANTZA LEHIAKETA**

Jaien egitarauaren barruan sartuta egon arren, Arrantza Txapelketa zapatuan, hilaren 9an, egingo dute.

**SAN KRISTOBAL, DOMEKAN**

San Martin jaien biharamuna gaingintzeko astia eman, eta datorren uztailaren 10ean San Kristobal jaia ospatuko dutela gogora ekarri digute. Dagoeneko prestatzen dabiltza guztia.

**KZGUNEAK, UZTAILEAN**

Uztailari begira, hilaren 11rako egin du hitzordua Aramaioko KZguneak. Zure etxebizitza aurkitu izeneko ikastaroa egingo dute, euskaraz. Izenburuak dioen moduan, Internet bidez etxebizitza saldu, erosi edo alokatzen erakusteko ikastaroa da. 09:00etatik 11:00etara izango da. Edozelan ere, KZguneko begiralea 13:00ak arte izango da, KZgunea erabiltzea behar duen edozeinen eskura.

**AEROBIK BEGIRALEA**

Aerobik eskolak emateko irakasle bila dabil Itur-Zuri elkarteak. Deitu 653 71 66 39 telefonora.

**Haur Eskolaren proiekturako dirua eskatu du Udalak**

U.M.

**Ekainari dagokion osoko bilkuran, besteak beste, herrian egingo dituzten obrak berbagai izan zituen udalbatzarrek: Haur Eskola, Eguzkierripako lanak eta babes ofizialeko etxebizitzak.**

0-2 urteko umeendako ezarri nahi duten Haur Eskola zerbitzuari dagokionez, jakinarazi digute hura egiteko dirua eskatzea onartu duela udalbatzarrek azkeneko osoko bilkuran. 168.283 euro pasatxo kostako da Haur Eskolarako eraikin berria eraikitzea. Hain zuzen ere, horixe da Mendikoi erakundeari eskatu dioten kopurua. Azaldutakoaren arabera, oraingo asteko astelehenean bukatzen zen eskaera aurkezteko epea. Hala, Udaleko arkitecto Unai Aiastuik aurreproiektua egin eta harekin batera aurkeztu diote diru eskaera Mendikoiri.

**EGUZKIERRIPAKO GASIFIKAZIO LANAK**  
Halaber, jakinarazi digute Haur Eskolarekin batera, Eguzkierri-

pa auzoan gasifikazio lanak egiteko ere eskatu diotela dirulaguntza Mendikoi erakundeari. Kasu horretan, 3.600 euro behar dituzte eta horixe eskatu diote.

Eskaera horiei Mendikoi nortzuen erantzunaren duen, berriz, ezin dutela ziurtatu esan digute.


**BABES OFIZIALEKO ETXAK**

Bestalde, babes ofizialeko etxebizitzak gainera puntu bat ere landu zuen udalbatzarrek. Hain zuzen ere, etxe horiendako urbanizazio lanak direla-eta, jakinarazi zuten etxeak eraikitzen bukatzen dutenean bukatuko dutela euren ere falta diren urbanizazio lanak egiten.

**DIRULAGUNTZA BI**

Eta bestelako artean, euskararen aldeko zenbait ekimen egiteko dirulaguntzak onartu zituzten zinegotziek. Baita ere, eskolako guraso elkarteari urteko dirulaguntza ematea.

Horrenbestez, eta aurreikusitakoaren arabera, opor aurreko azken osoko bilkura uztailaren hirugarren asteko eguaztenean egingo dute.



**Hontzak udaletxeko ganbaran**

Hara zer-nolako bisita izan duten udaletxekoek: hontza-kume bi. Uste dute amak han gorde dituela apurtxo bat hazi arte. Hori bai, hontza-kumeek ere ezustekoa izan dute Udalekoak ganbaran sartu direnean, eta argazkia atera eta hurrengo egunean lehengo lekuan ez zeudela ikusi zuten. Badaezpada ere, ganbarara igotzeari utzi diote langileek, hontzak bakean egoteko.

**BOTEPRONTOAN/ Zona Katastrofica · Musika taldea**

*“Eman diguten guztia kentzen badigute eta herrian jartzen badute gaztetxe bat, askoz hobeto”*

**T**xirritolan aurkeztuko ditugu eta gaur, barikua, izango da haiek ezagutzeko aukera, txosnetan. Aramaion sortu den talde berriaren gainean gabilta: Zona Katastrofica. Taldearen nondik norakoaren gainean berbetan izan gara haiekin:

**Nortzuek osatzen duzue taldea?**  
Gorka Urbina (gitarra), Andoni Beitia (baxua) eta Kepa Gredilla (bateria).

**Noiztik zarete Zona Katastrofica?**  
Urtebete eta zerbait dela hasi ginen.

**Zela edo zer dela-eta sortu duzue taldea?**  
Asperdura handiagatik. Eta koadrilako lagunak garelako ere bai.

**Zela jotzen duzue, musika ikasketak dituzue...?**  
Belarritz jotzen dugu.

**Aramaion musika lokalak izatea erraztasuna ematen du taldea sortzeko orduan?**  
Ez, txarto hasi ginen, garaje batean. Handik bota egin gintuzten eta hona etorri gara.

**Eta hemen zer moduz zaudete; zerbait igartzen duzue faltan?**  
Ez, ondo gaude, baina beste lokal handiago bat nahiago genuke, espazio handiagoarekin.

**Instrumentu aldetik zela kon-**



*“Ondo gaude, baina beste lokal handiago bat nahiago genuke, espazio handiagoarekin”*

*“Irteten dena jotzen dugu, eta pentsatzen duguna esaten dugu, inolako begirune barik”*

**pontzen zarete?**  
Ondo, baditugu nahikoa.

**Taldearen izenari begiratuta, zer gertatzen da, Aramaion leku katastrofiko asko daudela?**  
Bai. Herria hilda dago. Hemen ez dago gazteriarik, ez dago parrandarik, eta ez badago parrandarik, ez dago ezer ere.

**Eta zergatik ez dago parrandarik?**  
Ez dagoelako gaztetxerik.

**Gaztetxea horren inportantea da?**  
Bai, herri bakoitzean gaztetxe bat egon beharko luke.

**Gazte lokalekin ez da nahikoa?**  
Eman diguten dena kentzen badute eta jartzen badute gaztetxe bat, askoz hobeto.

**Eta zeuen kantuak ere katastrofikoak dira? Baduzue zeuen kanturik?**  
Bai, gureak baditugu. Irteten zaiguna jotzen dugu, eta pentsatzen duguna esaten dugu, inolako begirune barik.

**Musika aldetik, baduzue inspirazio iturrik?**  
Musika makarra egiten dugu. RIP, Eskorbuto eta Cicatriz entzuten ditugu asko.

**Zein da zuen plana taldeari dagokionez?**  
Aurrera segitzea, dibertitzea eta parranda asko egitea. Kontzertuak jo gurako genituzke.

# Urlatik

LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko uztailaren 1a / 13. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Xabier Urtzelai • Otolara Lizentziaduna 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: xurzelai@goiena.com • Lege gordailua: 55483/05

## Gatzagarrek, oraingoan, alde batera utzi dute Euskal Bizikleta herrira ekartzea


XABIER URTZELAI

Martitzenean egin zuten Dorletako Ama Txirrindulari Elkartekoek eta Udaleko ordezkariak batzarra. Euskal Bizikletaren, Gatzagako jaietako lasterketaren eta mendiko bizikletako irteeraren gainean egin zuten berba.

Eta batzar horretan erabaki zuten, oraingoan, datorren urtean Euskal Bizikleta herrira ekartzeak itxaron egin beharko dela. Alberto Altubek eman dizkigu xehetasunak: "Kontua da Eibarko antolatzaileek oraindik ez dutela Euskal Telebistarekin hitzarmenik lortu, eta teledistributzaileek ez badago, guri ez zaigu interesatzen lasterketa Gatzagara ekartzea".

### AURREKONTU HANDIA

Lan handia egin behar izateaz gain, Euskal Bizikleta Gatzagara ekartzea ez da batere merkea: "Hasteko, aurrerapen modura 12.000 euro ordaindu beharko genituzke, eta gero, beste 18.000 euro. Guztira, 30.000 euroko aurrekontua behar da lasterketa hori herrira ekartzeko, eta normala den moduan, diru hori emango diguten babesleek publizitatea gura dute ordainetan, eta tele-



GOIENKARIA

23 urte azpiko txirrindulariek hartuko dute esku irailaren 9an egingo duten lasterketan.

bistak eskaintzen du publizitate hori. Horregatik esan diegu antolatzaileei teledistributzaileek ez badago ez zaigula interesatzen".

### SASOI TXARREAN

Horrelako lasterketen etorkizunaren gainean UCI Pro-Tour elkarteak du zeresan handia: "Eurek hartu beharko dute era-

*"Antolatzaileei esan diegu ETBren hitzarmenik ez badago ez zaigula interesatzen"*

bakiren bat. Proba motzagoak egin, egutegia aldatu... Alde horretatik, Euskal Bizikleta egiten denean beste lasterketa batzuk ere izaten dira: Luxemburgoko Itzulia, Dauphine Libere... Uztailean atzeratzea zen beste aukera bat, baina hortxe dago Frantziako Tourra, eta orduan ez litzateke inor ere etorriko. Ikusi egin behar-

ko da zein irtenbide ematen dugun. Oraingoan, irailera arte itxarrotea erabaki dugu, eta zer dagoen ikusita, orduan erabaki".

### HERRIKOAK, ARAZO BARIK

Euskal Bizikletarekin batera, herriko jaietan egingo duten lasterketaren gainean ere egin zuten berba, baita urrian egingo duten mendiko bizikletaren gaineko probaren gainean ere: "Bi ekimen horiekin ez dago arazorik, eta aurrekontuak osatuta ditugu. Txirrindularitza lasterketa irailaren 9an egingo dugu, Arantzazuko Amaren egunean. 09:30ean hasiko da lasterketa, eta ibilbidean ez da aldaketarik izango. Egun horietan egingo dituzte Elgetako eta Ataungo txirrindulari probak ere, baina ez gara horren heldur, Gatzagako lasterketak beti izan duelako arrakasta. Alde horretatik, elite mailako talderen bat etorriko bada ere, gehienak 23 urte azpikoak izango dira, maila handikoak, baina".

Eta mendiko bizikletako proba urriaren 9an egingo dute: "Probak horrek urtetik urtera indar handiagoa du. Joan den urtean ia 100 lagun etorri ziren. Aurten 5 kilometro gehituko dizkiogu ibilbideari, baina ez gara pasatuko, etortzen diren guztiak ez dira eta goi mailako txirrindulariak".

## Domekan, bero egiten badu, San Martin ermitak emango du babesa

X.U.

Domekan ospatuko dituzte San Martin jaiak, Goierri auzoan dagoen ermitan. Oraingo astean egin duen beroak jarraitzen badu, ermitaren freskotasunean elkartu ahal izango dira gatzagarrik.

Joan den urtean eguraldi ederra izan zuten, eta hori dela-eta jendeak gurago izan zuen kanpora joan San Martinetan geratu bai-

no. Orduan, erromeriara animatu zirenek aipatu zuten inoiz baino jende gutxiago ibili zela. Horren adibide izan zen meza-oren ondoren egiten duten doke txapelketa bertan behera utzi zutela, jende gutxi zegoelako.

### 12:00ETATIK AURRERA

Eta erromerian beroari ahal duten moduan aurre egiten ahal-eginduko dira gatzagarrik. 12:00etan, etxafuegoek iragarriko dute egun bereziaren hasie-

ra. Gero, meza emango dute San Martin ermitan, eta mezaren ondoren, herritarrek urteroko luntxa egingo dute. Gustura geratu eta gero hasiko dute tradizio handiko doke txapelketa. Egia esateko, baina, ibarrean gero eta leku gutxiagotan egiten dute joko hori. Eta bazkaltzeko orduan, gehienak euren etxetara erretiratuko badira ere, hainbat auzotarrek batera egingo dute bazkaria, urtero egiten duten moduan.



Herritarrek Goierriko auzotarren kontra lehiatuko dira dokean.

Aretxabaleta eta Eskoriatzako

# Gremioen Gida



RADIO  
ELECTRICIDAD  
LEGAZPIA

**"R.E.L.E."**  
Gotzon Beitia Lazkano

Denda:

Santa Ana 17, Eskoriatza  
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 65

Tailerra:

Santa Ana 12, Eskoriatza  
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 12

ESKORIATZA

AITZORROTZ  
elektronika

- Telebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10  
Otalora, 14 ARETXABALETA

Hnos. SAJERAS, C.B.



Margogintza  
Dekorativo eta Industrialia

San Pedro, 14 behea ESKORIATZA  
Tel.-Faxa: 943 71 47 28  
Arrasate Tel.: 943 77 16 66  
Poltsikokoa: 608 92 11 18

**FRIXI** Eraikuntzak

Hormigoizko estrukturak,  
urbanizazio, kontratak  
eta enpresen mantenimenduak

Aranburuzabala 56 ESKORIATZA  
Tel. eta faxa: 943 71 55 15 Poltsikokoa: 629 51 39 22



Jon Axpe Oyanguren

**OYANGUREN**  
Iturgintza

Aranburuzabala 15  
ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 47 14  
606 007 369  
f.oyanguren@ctv.es

- Iturgintza •
- Gasa •
- Berogailuak •
- Peetrolio-produktuak •
- limatizazioa •

**L. GONZALEZ**

PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Basabe poligonoa F-6  
ARETXABALETA  
686 113 581

**ARETXARGI**

Modesto ROMEO  
Aretxargi@euskalnet.net

BELORRIETA 15, BEHEA 20550 ARETXABALETA - GIPUZKOA

943 532 628 645 734 032

INSTALAKUNTZA ELEKTRIKOAK



Instalazioen mantenimendu osoa  
Berokuntza • Gasa  
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.  
Tel.: 943 77 19 88. Faxa: 943 79 59 97

**J.J. ITURGINTZA**  
**IRURE**

URA  
GASA  
KALEFAKZIOA

MITARTE 15  
ARETXABALETA

943 793 187



Basabe poligonoa D-2-1  
117 posta kutxa  
ARETXABALETA  
Telefona eta faxa:  
943 79 78 45  
Poltsikokoa:  
616 96 57 98

**ARETXABALETA**  
**ITURGINTZA**

Durana, 16-Tel.: 79 17 53  
ARETXABALETA

Zure lanak  
iragartzeko  
lekurik  
aproposena

- Barruko zein kanpoko lorezaintza.
- Ureztatzeko sistemak: automatikoki, eskuz eta tanta-jario bidez.
- Loreontzi-euskarriak, balkonerak, eta abar.

# POLTSIKO GUZTIETARAKO SUPER-ESKAINTZAK ABUZTUAN

Zuk zeuk aukeratu!

**10.000 ESERLEKU**  
Abuztuko edozein irteeratarako

MALLORCA	MENORCA	EIVISSARA	8 egun / 7 gau	TENERIFE	LANZAROTE	FUERTEVENTURA
Deetaá Aptu. 2 <sup>LL</sup> 4 pers OB Sur ** H. ME			<b>350€</b>	Valleluz Aptu. 2 <sup>LL</sup> HG	Club Sirocco Aptu. 2 <sup>LL</sup> 2 pers OB Los Naranjos Aptu. 2 <sup>LL</sup> 2 pers OB eta 2 aukera gehiago...	La Pirámide Aptu. 2 <sup>LL</sup> 2 pers OB
Deetaá Aptu. 2 <sup>LL</sup> 2 pers OB Catalonia Sol Pinos ** H. ME			<b>400€</b>	Valleluz Aptu. 2 <sup>LL</sup> ME Park Plaza Aptu. 2 <sup>LL</sup> ME eta 2 aukera gehiago...	Oferta Roulette 2 <sup>LL</sup> OB Don Paco Castilla Aptu. 2 <sup>LL</sup> OB eta 2 aukera gehiago...	Castillo de Elba Aptu. 2 <sup>LL</sup> OB La Pirámide Aptu. 2 <sup>LL</sup> OB
Catalonia Sol Pinos ** H. MO Orleans Garden *** H. ME eta 6 aukera gehiago...		Abraí *** H. ME Riomar ** H. ME	<b>450€</b>	Valleluz Aptu. 2 <sup>LL</sup> MO Chimisaeta *** H. ME eta 4 aukera gehiago...		
	Diana II Aptu. 1 <sup>LL</sup> OB Est. Cisne Blanco 2 <sup>LL</sup> OB		<b>500€</b>	Pez Azul Aptu. 3 <sup>LL</sup> MO Perla Tenerife *** H. MO eta 3 aukera gehiago...		Suite Puerta del Sol 2 <sup>LL</sup> H. ME
Riulette **** ME Hotetur Club Laguna Bellevue 3 <sup>LL</sup> 2 pers H. ME eta 6 aukera gehiago...		Bergantín *** H. ME Fiesta Roulette *** H. ME	<b>550€</b>	Dania Park **** H. ME Panorama *** H. ME eta 6 aukera gehiago...	Los Fiscos Aptu. 2 <sup>LL</sup> ME Las Gaviotas Aptu. 2 <sup>LL</sup> ME Sol Morromar Aptu. 2 <sup>LL</sup> ME	Club Green Oasis Sun River **** H. ME, Club Tofio *** H. GB, Green Oasis Costa Calma Aptu. 2 <sup>LL</sup> GB
Hipotels Oferta **** ME Riu Bonanza **** H. ME eta 8 aukera gehiago...	Barceló Pueblo *** H. ME		<b>600€</b>	Catalonia Punta del Reeta **** H. GB, H10 Las Palmeras **** H. ME, eta 5 aukera gehiago...		
	Mediterrani *** H. ME	Fiesta Cala Nova *** H. ME Fiesta Cala Gració *** H. GB eta 2 aukera gehiago...	<b>700€</b>		San Antonio **** H. ME H10 Lanzarote Princess *** H. ME eta 3 aukera gehiago...	
Oferta Riu **** GB		Sol EIVISSARA **** H. ME Fiesta Club Bahamas *** H. ME	<b>750€</b>			Elba Sara **** H. ME Fuerteventura Plaetaa **** H. GB eta 3 aukera gehiago...
	Sol Falcó *** H. ME Valentín Son Bou **** H. ME		<b>800€</b>	Meliá Jardines del Teide **** H. GB	Occidental Allegro Oasis **** H. GB Rio Plaetaa Blanca **** H. GB Barceló Lanzarote **** H. GB	

9 egun / 7 gau	DOMINIKAR ERREPUBLIKA	KUBA	MEXIKO
<b>900€</b>	IFA Bávaro Village **** H. GB, Grand Paradise Bávaro **** H. GB eta 2 aukera gehiago...	Gran Caribe Neptuno *** H. HG, H. Copacabana **** HG eta 3 aukera gehiago...	Imperial Las Perlas *** H. GB, Dos Plaetaas *** H. GB
<b>1000€</b>	Ocean Cana Beach **** H. GB, Sunscape Punta Cana Grand ***** H. GB eta 4 aukera gehiago...	Gran Caribe Habana Riviera **** H. HG, Caribe Inglaterra **** H. HG eta 6 aukera gehiago...	Maetaa Caribe **** H. GB
<b>1100€</b>	Catalonia Bávaro Beach ***** H. GB, Riu Taíno ***** H. GB, Riu Bambú ***** H. GB	Gran Caribe Club Kawama **** H. GB, Gran Caribe Varadero Internacional **** H. GB eta 4 aukera gehiago...	Club Maeva **** H. GB, Riu Lupita ***** H. GB, Caracol Village **** H. GB
<b>1200€</b>	Riu Palace Macao ***** H. GB Meliá Caribe Tropical ***** H. GB	Treap Habana Libre ***** H. HG, Nacional de Kuba ***** H. HG eta 7 aukera gehiago...	Meliá Turquesa ***** H. GB, Riu Cancún ***** H. GB, Gala Beach Resort ***** H. GB

**ZURE OPORRENGATIK EGIN DEZAKEGUN GUZTIA EGIN EGITEN DUGU.**

IRTEERAK BILBOTIK, Karibera izan ezik; horiek Madrildik.

Hegaldiaren gehigarria Bilbotik Mallorcara eta Fuerteventurara: 30€, EIVISSARA: 80€, Menorcara: 70€, Lanzarotera: 50€.

Prezioak pertsonako logela bikoitzean, kontrakoik esaten ez bada eta aurretik aipatutako erregimenean. Abuztuko irteera konkretuentzat bakarrik. Karburantearen igoera, tasak, bisa, gestio datuak eta hegaldiaren gain kostua ez daude barne. Janari-erregimena: OB: Ostatur Bakarrik; ME: Mantenu Erdia; HG: Hotela eta gosaria; MO: Mantenu osoa; GB: Guztia Barne. Prezio zuzenak tipografiako akatsik egon ezean. ESERLEKU MUGATUAK.

**VIAJES IBERIA**

902 108 108

PREZIOA BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

viajesiberia.com



# Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko uztailaren 1a / Gehigarri berezia

Festaz  
mozorrotzeko  
ordua!



## SANMARTINAK05

ARGAZKIA: UBANE MADERA



ARAMAIOKO UDALA  
ARABA

*Aramaioko Udalbatzak San Martin jai  
zoriontsuak opa dizkizue aramaiar guztioi*

Bixente Goikoetxea enparantza, z/g • ARAMAIO • Tel.: 945 44 50 16



**JAI BATZORDEA/ Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanblada**

**A**urten be Aramaixo Tropikaleko Gazte Asanbladak berriro jaixek antolatutxu eta aurreko urtekuen modukuek edo hobiet izetie espero dou. Aipatzekue da jai honeik danontzat gustokuek izeteko ahalegi- nek in douela.

Danok dakigun moduen jaixek ondo pasetako die eta umore txarrak etxien itxitxe danok kalea urteteko eta ederto pasetako aukera ezin hobie da. Baine ezin dou ahaztu herriko bi seme herrixen falta diela. Aupa zuek!

Besteik barik ondo pasau San Martinek!!!

**ALKATEAREN AGURRA/ Mertxe Mondragon**

**H**emen ditugu aurten ere San Martin jaiak, gure eguneroko bizitzan geldiene bat egiteko momentua. Gainera, guztiok elkartzeko ueña eta etorriko diren bisitariak eskuzabalik hartzeko ueña ere bada.

Aurrekoetan bezala, aurten ere gazteek hartu dute jaiak

antolatzeko ardura. Ilusioz beteta, guztiarentzat gustukoak izango diren ekintzak antolatzeko aritu dira, eta orain guri dagokigu horietaz disfrutatzea.

Aramaioko Udaleko udalbatzarrek jai hauetaz gozatzera animatzen zaituzte, bakean eta pozik igaro ditzagun, gogoan izanik momentu hauetan gurekin egoterik ez dutenak ere.

# PROMOCIONES ARAMAIXO

## 12 etxebizitza berri Aramaion

Informazio gehiago:

630 31 13 18 / 659 93 53 70 / 619 71 60 65

Nardeaga kalea 26

**Ondo pasa San Martin jaiak!**



EGITARRAUA

# JAIXETAKO EGITARRAUA

## Barikue, 1

**19:00 Pregoie.** Asuntue uluke eta zarataka hasteko. (Jaixetako programako kartelen sari banaketa).

**Pregoien ostien: BERTSO-POTEO-JOKUEK, ILUNA** "xoro doktoarearen zoramenak" GAZTETXUENTZAKO KALEJIRIE eta TRIKITIXE.

**23:00 Txosnetan: DRAKES, GOLPE DE ESTADO, ZONA KATASTROFICA, AGRESSIVE COMBAT** eta ARDI GALDUAK.

Gure dauenandako belarrixetako tapoiek banatukoitxu ATGA-k.

**23:30 Plazan: IMUNTZO ETA BELOKI.**

## Zapatue, 2

**12:30 ERIZ MAGUE.** Numero barri batekin dator: "Udaletxearen ebaporazioa". Sinestu ezien etorri eta ikusi!

**Bazkalorduen:** ajeie daukienak Coca-Colie eta bestientzat ure.

**17:00 Kurtzetan: TIRO-PLATUE.** Edo Platotirue, edo Tiroalplatue... edo Azpil-apurtzea Euskaltzaindiantzako.

Herritxik ziherr LA BANDA DE SALINAS txarangie. Gatz apur bat emuteko herrixei.

**17:00 Parkien: MUS ETA BRISKA TXAPELKETIE.**

**18:00 Parkien: TXIRRITOLINPIADAK.**

**19:00 Plazan: SAGARDO FESTA:** trikitixa, bertso eta sagardo kupelakin. Txooooootx!

**20:30 Kulturetxien: HERRIKO GAZTETXUEN ANTZERKIXE.**

**22:30 Plazan: SILIKONAY, KUNG FUNK, HOSTILE** eta DENIAL.

**23:30 GAU ALAI.**



BARIKUAN, ZONA KATASTROFICAK JOKO DU



UMEENDAKO JOLASAK-ETA IZANGO DIRA



ARRASATE MUSIKALEKOEK JOKO DUTE



ARRANTZA TXAPELKETA ZAPATUAN DA

## Domekie, 3

**12:00 Eleixan: MEZA SANTUE.** Bizente Goikoetxearen Mesa Solem.

**Meza ostien** Herriko dantzariexek.

**16:30 Jolasparkie,** tailerrak eta ASPERZORAZUE.

**17:30 Herri-kirolak** Herri kirolak: egurre ebai, harririk bizker gaiñea jaso ta holako gauzak...

**Ostien plazan BERTSO SAIUE:** Xabier Amuriza, Xabier Paya, Zigor Enbeita eta Arkaitz Estiballes.

**Arratsaldien: SORGINETXE** txarangie herritxik ziherr.

**22:30 TAHUMA** kubanuek.

## Astelehena, 4

**11:30 Parkien: UME JOLASAK** (ATGA-k antolatute).

**12:00 Eleixan: MEZA SANTUE.** Herriko hildakoen alde.

**17:00 GAZTETXUENDAKO** POKO PIKO berbenie.

**17:30 Parkien: KUADRILLEN ARTEKO PIKIE** (Apuntetako herriko tabernetan).

**Arratsaldien** LAPERNEN ORROA txarangie.


**19:30 Kulturetxien** PAPARGORRI ABESBATZA ta ARRASATE MUSIKALEKO KONTZIERTUE.

**21:30 Plazan: HERRI-AFAIXE.**

**22:30 Plazan: KAIKO.**

**01:00 Txosnetan: MOJITO FESTA** eta PINTXADISKOSa.

**04:00 Txosnetan:** Aramaixoko Munizipalen Sindikatuek antolatute KANTZONTZILO, KULERO eta TANGA KARRERIE.



Musika eta giro paregabea

Bixente Goikoetxea 10. Tel.: 615 70 45 98 ARAMAIO

## UNZUETA JATETXEA

Nekazalturismoa

Azkoaga (Zabola)  
Tel.: 945 44 50 95

## MUSIKA

# Bi rock emanaldi Abesbatza eta egingo dituzte Musika Eskola

Bata, txosnetan; eta bestea, herriko plazan

18 gaztetxo abesten, eta Aramaio musikiariak

IKER BARANDIARAN

**Azkeneko urteotan moduan, bi kontzertu antolatu dituzte jaietarako. Bata, barikuan, txosnetan, eta bestea, zapatuan, plazan. Biharkoan musika estilo asko joko dituzte.**

**A**ramaio Tropikaleko Gazte Asanbladak oso argi dauka jai eta musika herri osoan zabaldu gura dituela. Horregatik, bi jaialdi egingo dituzte: bata, txosnetan; eta bestea, herriko plazan.

Gaur, egubakoitza, batez ere punk eta Oi! musika taldeek esku hartuko dute, eta hitzordua 23:00etan egin dute. Oñatiko Drakes talde gazteak punk eta Oi! musika uztartuko ditu. Horrekin batera, Golpe de Estado oñatiarrek eta Zona Katastrofica aramaioarrek punk kantuar joko dituzte. RIP, Eskorbuto, Commando 9 mm. eta halako taldeak gogora ekarriko dituzte. Arrasateko beste bi kaskamotz talde ere joko dute: Agressive Combat eta Ardi Galduak taldeek, hain zuzen ere. Aipatu beharra dago Ardi Galduak taldean aramaioar bat dagoela.

#### ZAPATUAN, DENETIK

Bihar, zapatua, kontzertua egingo dute herriko plazan, 22:30ean. Lau talde izango dira, eta eskaintzak, denetariokoak. Aretxabale-tako eta Arrasateko musikariak osatutako Denial talde indartsua izango da. Danbaca Debagoieneko I.



AITOR LIZARRALDE

Punk eta Oi!-az gain, beste doinu batzuk izango dira. Adibidez, Denial.

**Egubakoitzean, punk eta Oi! kontzertuak egingo dituzte. Zapatuan, berriz, hip-hopa, rock gogorra, metala eta abar.**

Musika Lehiaketarako sailkatu zen talde hori, eta death-metal indartsua egingo du. Horrekin batera, Legutianoko Kung Funk taldeak ere joko du. Hip-hop, eta beste doinu batzuk egingo dituzte, tam-tam eta DJen laguntzare-

kin. Adibidez, *España huele a culo* kantua jotzen dute. Ez dira arabar bakarrak izango. Zurbanoko Silikonay taldeak ere joko du. Baita ere Madrilgo Hostile taldeak, lehen Terroristars zirenak. Horiek rock gogorra egingo dute.

I.B.

**Astelehenean, bi musika kontzertu egingo dituzte kultura etxean. 19:30ean, Papargorri abesbatzak; eta 20:00etan, Arrasateko Musika Eskolako Aramaio musikiariak.**

**P**apargorri abesbatzak lau bat urte dauzka eta urtero jaietan kontzertua egingo du. Gaur egun, 18 bat gaztetxok esku hartzen dute taldean, eta horiek guztiak abestuko dute astelehenean. Zortzi bat abestiz osatutako emanaldia prestatu dute, eta ordu erdi inguruko iraungo du.

Taldeko arduradunen esanetan, abesti alaiak eta serioagoak uztartuko dituz-

te: Usandizagaren *Uso txuria*, Juan Carlos Irizarren *Begiak, Sonrisas y lágrimas, Aitak eta amak, Kanbon* eta Salaberriren *Man-txa pio*, besteak beste.

Gaur egun abesbatza 9 eta 16 urte bitarteko 18 lagunek osatzen dute. Horieta-rik bi mutikoak dira, eta beste guztiak neskatilak. Arduradunen esanetan, lehen mutiko gehiago zizuten, baina beste mutikoek iraindu egiten zituzten abestu egiten zutelako. "Abestea futbolearen jokatzea bezain garrantzitsua edo gehiago da. Hortaz, utz ditzatela bakean. Abestea gure ohituretan oso barneratuta dago, eta ez genuke galdu behar", azpimarratu zuten arduradunek.

Papargorri asmoa dauka gaztetxoekin bi talde egiteko: bata, 7 urtetik

gorakoa; eta bestea, 13 urtetik gorakoa. "Nagusienekin pieza zailagoak abesteko, eta txikienekin lehenbailehen abesteko ohitura har dezaten".

#### HERRIKO MUSIKARIAK

Arrasateko Musika Eskolan hainbat aramaioarrek ikasten dihardute. Horregatik, azken 10 urteotan, urtero, musikari horiek kontzertua egingo dute. Papargorriaren emanaldiaren ostean izango da. Eskolako Talde Instrumentalak esku hartuko du, eta ordu bete inguruko saioa egingo du.

Arantzazu Idigoras zuzendari dutela, haize, egur, metal eta harizko instrumentuak entzun ahal izango dira. Besteak beste, euskal abestien moldaketak egingo dituzte aramaioarrek eta lagunak.



ASTELEHENEKO GOENKARIA

Papargorri abesbatzak urtean hainbat kontzertu egingo ditu Aramaion eta beste herri batzuetan.

**BA BEHI-ALDE**  
ERKOP

**BEHI-ALDE, KOOP. E.**

Olaeta-Aramaio (Araba)

Zuzenbide postala

44 posta kutxa  
20500 Arrasate



Tel.: 945 45 01 00

945 45 03 15

Faxa: 945 45 01 00

945 45 03 15

ONDO PASAU SAN MARTIN JAIK!

**GOIKO**

**taberna**

Nardeaga 25

ARAMAIO

Tel.: 945 44 50 14

UMEAK ETA GAZTETXOAK

# Egunero, gaztetxoak eta umeak San Martinetako bezero

Kalejira, antzerki, jolas zein dantzaldi, ume eta gaztetxoendako gauza ugari antolatu dituzte

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Toki guztietan umea ume, dio esaerak; eta jaietan ere hala behar eta umekeria-tan ibiliko dira Aramaioko haurrak eta gaztetxoak. Izan ere, horretarako badute nahiko aukera.**

Haurrei eta gaztetxoei beti gordetzen zaie toki berezia edozein herritako jai egitarauan; eta Aramaioko San Martinetako ere gauza asko gertatu dituzte euredako.

Barikuan, pregoiaren ostean, gaztetxoendako kalejira izango da herriko kaleetan; *Xoro doktoarearen zoramenak* emanaldia eskainiko du Iluna taldeak.

Gaztetxoek San Martinak jai eta dantza giroan hasi ondoren, zapatuan txikiak hartuko diete lekukoa. 12:30ean Eriz mago oreretarraren ikuskizuna izango da herriko txikiendako plazan. Magia trukuak eta asmakizun probak egingo ditu mago horrek. Zapiak, sokak zein kartak erabiliko ditu, umeak bere magia jolasekin harrizteko. Antolatzaileen esanetan, udaletxea desagerrarazi egingo du. Sinistu ezean, probatzeko bertara joan eta ikusi beste erremediorik ez dute aramaiorrek.

**ANTZERKIA**

Goizean besteei begira egon ostean, arratsaldean herriko gaztetxoak eurak bihurtuko dira ikuskizuneko protagonista. Izan ere, kultura etxean etorkizuneari izar



Iaz moduan, aurten ere ATGAK jolasak antolatu ditu umeendako, astelehenean 11:30ean, parkean.

## Zapatu iluntzean bi antzerki lan egingo dituzte herriko gaztetxoek kultura etxean: 'Maritxu, nora zoaz?' eta 'Urdinen abenturak'

handi izan daitezkeen antzezleek saioekin gozatzeko aukera izango da, 20:30ean.

Baten faltan bi antzezlari egingo dituzte taula gainean. "12-15 neska-mutilek eman dute izena eta bi talde egin ditugu aurten. Iaz

egin genuen lehen aldiz jaietan antzerkia, eta izandako arrakasta ikusita aurten berriro egitea erabaki dugu; umeak eta gurasoak gustura geratu ziren", esan digute antolatzaileek.

Maiatzetik hona bitartean, astero, gogor eta gogoz

## Aurten jolasparkea eta tailerrak egun berean ipini dituzte; astelehenerako dantzaldia antolatu dute

jardun dute entseatzeko gaztetxoek eta bi lan prestatu dituzte: *Maritxu, nora zoaz?* eta *Urdinen abenturak*.

*Maritxu, nora zoaz?* antzezlanean, ikasgela baten parodia egingo dute gaztetxoek. *Urdinen abenturak* lanak, berriz, men-

dira joan eta galtzen den mutiko bat izango du protagonista; mitologiako pertsonaiekin egingo du topo.

**JOLASPARKEA**

Domeka arratsaldean jolasparke bihurtuko da herriko parkea, 16:30ean hasita.

Bertan, puzgarriak ipini ditzate umeak saltoka ibiltzeko. Bestalde, tailerrak ere izango dira. Batzuk saltoka eta jolasean dabil-tzan bitartean, gainontzeko ume eta gaztetxoek eskulanak egiteko aukera izango dute.

Orain artean, jaietako egun baten puzgarriak ipini ohi zituzten eta beste batean tailerrak, baina aurten bateratu egin dituzte egun eta gunen barruan. "Horrela, egun batean biak ipinita, hurrengo egunean neska-mutilendako beste zerbait antolatzeko aukera genuen, eta hala egin dugu; astelehenean dantzaldia izango da".

Gurasoek atseden hartzen duten bitartean, umeak nahiko nekatuko dira saltoka. Baina euren nekea arintzeko mangera gertu izango dute. Beraz, bainujantzia ipini eta ur zorrotada izugarriari aurre egiteko gertu izango dira denak.

**DANTZALDIA**

Umeek eta gaztetxoek, nagusien pare ibiltzeko, parrandarako aukera izan behar dutela eta, astelehenean dantzaldia izango da, 17:00etan, plazan Poko-Piko taldearen laguntzarekin. Modako kantuak zein dantzarako hainbat abesti eza-gun jarriko dituzte eta aramaiorrek diskotekan baleude bezala dantzan jardungo dute.

*Asteak balira jai, gazte alperrak hori nahi*, dio esaerak, eta Aramaion umeek eta gaztetxoek ere bai, gehituko genioke. Izan ere, horrelako egitarauarekin nork ez luke nahi egunero jaiak izatea?

**UXARTE**

- Bost logela komunekin
- Bazkari eta afariak
- \* Telebista logelatan

Nekazalturismoa

Untzilla(Aramaio) • Tel.: 945 44 51 46 • Faxa: 945 44 59 10  
uxarte@euskalnet.net

**ITURRIOSTE**  
**GARAJEA**

Nekazaritza makinak eta autoen salmenta eta konponketa.

Olio, gurgil eta balazten konponketa

**Ondo ibili jaietan!!**

Santi Kurtz plaza 14.  
Tel.: 945 44 51 28. ARAMAIO

## LEHIAKETAK

‘Pike sanue’  
gazteendako

Proba berriak izango dira aurtengo ‘pikien’

UBANE MADERA

Biharamuna etxean utzi, oinetako erosoak jantzi eta Bañera parkera joko dute gazte askok astelehen arratsaldean. Besteak beste, etxeko zapatilak jaurtizten ikusiko ditugu.

**A**puntetan ez diena kuadrillaik ez daukielako izengo da eta edadien eskusiek ez dau balixoko”. Modu horretan iragarri dute gazteek aurtengo Kuadrillen Arteko Pikie. Gertu-gertu dituzte pikerako probak, zazpi gutira. Orain, koadrilak behar dituzte, elkarren artean lehiatzeko (zortziko taldeak egingo dituzte). Herriko tabernetan izena eman besterik ez dago.

Hortik aurrera, barrea eta dibertimendua seguru izango dira Bañera parkean elkartuko diren gazteendako zein ikusleendako.

## OHIKOAK ETA BERRIAK

Izan ere, gazteek antolatutako dituzten zazpi proben artean, batzuk tradizionalak izango dira; beste batzuk, berriz, guztiz originalak. Azken horien artean, *Etxeko Zapatila Jaurtiketa* (iazko Aitzur Jaurtiketa baino seguruagoa, duda barik); *Tontaldixe* (korrika egin, poste bati bueltak eman mareatu arte eta buelta); *Tren Txutxu* (makila bati soka batekin hiru lagun lotuta, lasterketa antzerakoa); *Txikiliñe* edo *Polboroie* (zeinek agudoen jan, irabazi; ur barik, jakina!) eta *Katxi Toldo* (iaz egundoko arrakasta izan zuen gazteak tol-



U.M.

Ahoa siku-siku geratu zitzairen iaz gazteei Txikilina jan eta jan.

‘Etxeko Zapatila Jaurtiketa’,  
‘Tontaldixe’, ‘Tren Txutxu’,  
‘Txikiliñe’ eta ‘Katxi Toldo’ probak  
izango dira, besteak beste

do busti baten behera zela jausten ziren ikusteak eta aurten errepikatu egingo dute. Hori bai, bat behar-rean, aurten bi toldo ipiniko dituzte, entrenatzen ibili direnei zailago ipintzeko-edo). Ohiko jolasen artean, berriz, zaku-laster-

keta eta soka-tira egin beharko dituzte.

## SARI SORPRESA

Bukatutakoan, irabazleendako sari sorpresa izango da. Eta horrekin batera, xanpaina eta txosnetan gastatzeko txartel batzuk.

Giro herrikoia  
duten ekitaldi bi

Txirritolinpiadak eta Sagardo Festa, zapatuan

U.M.

**Txirritola Euskara Elkarteak antolatu ditu Txirritolinpiadak; ATGAK, berriz, Sagardo Festa. Txirritolinpiadak ezagun egin dira herrian; Sagardo Festarendako lehen aldia da.**

**B**i ekitaldiak bihar izango dira; 18:00etan Txirritolinpiadak, parkean eta 19:00etan Sagardo Festa, plazan.

Bi mailatan banatuko dituzte lehiakideak Txirritolinpiadetan: 12-16 urtekoak batetik eta 17tik aurrerakoak bestetik. Guztiak ere hirunako taldeetan antolatuko dira olinpiada herrikoietarako. Eta bi mailetak taldeek ibilbide

bera egin beharko dute: Bañera parkean bizikleta hartu eta aldapan gora egin, Arrikoiti baserriraino; aldaketa egingo dute han eta ostera parkera itzuli beharko dute, oinez edo korrika, nork bere erara.

Bukatzeke, Bañera parkean trebezia proba bat gaititu beharko dute lehiakideek.

## ORDUBETE INGURU

Ordubete eskas irauongo dute Txirritolinpiaderek. Iaz, esaterako, oso-oso azkar egin zuten ibilbidea; bai aldapan gora, eta, zeresanik ez, aldapan behera.

Sariei dagokienez, 16 urtera artekoendako honako hauek izango dira: 120 euro lehenengo hirukotearendako; 60 bigarrenarendako eta 30 euro hirugarrenarendako. Eta 17 urte-

tik gorakoendako, 160 euro irabaziko ditu talde irabazleak, 120 bigarrenak eta 60 euro hirugarrenak.

## SAGARDO FESTA

Bestalde, aurten lehenengo aldiz Sagardo Festa antolatu du ATGAK: “Zerbait herrikoia antolatu gura genuen, hemengo ohiturekin lotura duena”.

Hala, sagardo kupelak ekarriko dituzte Bizente Goikoetxea plazara zapatuan. Halakoetan ohienez, edalontzia erosi, txotx egin eta hortik aurrera, kupelaren txorrota etengabea izango da. Euskal giroa indartzen laguntzeko, trikitilariak eta bertsolariak ere etorriko dira plazara: “Herri osoa hankaz gora eta jai giroan jarriko dute, euren trikiti, bertso eta sagardo kupelekin”.



TISASO LOPEZ DE BERGARA

Iaz, sasoi onean zeudela erakutsi zuten Txirritolinpiadetan parte hartu zutenek.

SAIO BEREZIA GOIENA TELEBISTAN

## San Martin jaiak Aramaion

Martitzenean, uztailaren 5ean, 21:00etan eta 22:30ean



Ikustekoa!



KIROLA

# Herri kirol eta plater-tiroarekin batera, Maider Undari omenaldia

Zapatuan egingo dute Kurtzetan plater-tiro txapelketa; domekan, berriz, omenaldia eta herri kirolak

XABIER URTZELAI

**Borroka librean dabilen Maider Undari omenaldi berezia jasoko du domekan. Egindako kirol lorpenengatik egingo dio Udalak omenaldia.**

Aurtengo Aramaio-ko jaiak bereziak izango dira Maider Undari-ko. Udalak merezitako omenaldia egingo dio, eta alde horretatik, askoz ere gehiago ezin dugu kontatu, alkateak ekitaldian egongo dena sorpresa dela esan digu-eta: "Udaleko kideak 12:00etan izango den mezetara joango gara, eta mezetara etortzeko gonbidatu dugu Maider. Gero, Udaleko osoko bilkuren aretoan egingo dugu omenaldia". Horrekin batera, alkateak azaldu digu zergatik ez datorren ekitaldi hori jaien egitarauan: "Zalantzan geunden, Maiderrek esan zigulako, akaso, egun horretan txapelketaren bat izango zuela. Horregatik ez genuen egitarauan sartu; azken momentuan eman digu baietza".

**ONDO MEREZITAKOA**  
Mertxe Mondragonek esan digu aspaldi hasi zirela Udalekoak omenaldian pentsatzen: "Horrelako omenaldi bat jasotzeko egin behar diren guztiak egin ditu Maiderrek. Gogor egin du lan, eta sari asko irabazi ditu. Ez dut aste, kirolean, Aramaio-ko beste inork Maiderrek baino kirol lorpen handiago



Aurten, gazteei eta nagusiei parte hartzeko dei egin gura diete Kurtzeta-Gain elkartekok.

**"Domeka eguerdiko mezetara gonbidatu dugu Maider, eta gero egingo dugu ekitaldia, osoko bilkuren aretoan"**

ak egin dituenik. Eta hori guztia gutxi balitz, emakumezkoa da".

**UDALETXEKO ATEAK IREKITA**  
Alkateak gogorarazi gura izan du dagoeneko amaitu dituztela udaletxeke berritze lanak, eta Maide-

ren omenaldiarekin batera, aramaioarrek aukera izango dutela lanak egin eta gero eraikina nola geratu den ikusteko: "Ateak irekita egongo dira aramaioar guztiendako; udaletxea 14:30ak arte egongo da irekita".

**"Plater-tiro txapelketan, berotzeko full modalitatean ibiliko gara, eta gero egingo dugu 15 platereko saioa"**

**PLATER-TIROA, ZAPATUAN**  
Zapatu arratsaldean, punteria egin gura duenak Kurtzetan izango du aukera ona, Kurtzetagain Tiro Taldeak txapelketa antolatu du-eta. Juan Luis Nafarratek eman dizkigu txapelketaren gaineko

zehaztasun gehiago: "Gura duten herritarrek hartu ahal izango dute esku, baina horretarako baimen berezi bat behar da. Dena dela, txapelketa hasi aurretik eskuratu ahal izango da baimen hori, Kurtzetan bertan". Aurten, gazteei

eta nagusiei deialdia egin gura izan diete: "Anima daitezela, bai gazteak eta baita erretiratuak ere". Joan den urtean 30 lagun izan ziren txapelketan, eta aurten beste horrenbeste izango direla espero du: "30-40 lagun inguru elkartuko gara. Lehenengo, Full modalitatean egingo dugu, bost plater botako ditugu. Hori berotzeko ariketa izango da, eta gero egingo dugu 15 platereko saioa".

Aramaio-ko jaiak igaro eta gero, Kurtzetagain taldekoak ez dira geratuko: "Arexolako jaietan ere plater-tiro txapelketa egingo dugu, beste modalitate batean, baina. Eta San Esteban jaietan ere egingo dugu zerbait. Irailean, berriz, txapelketa probintzietan izango gara, eta kilometroetarako ere egingo dugu plater-tiro saioa, Gatzagan".

**HERRI KIROLAK, DOMEKAN**

Plater-tiroa ez da izango, baina, jaietako kirol hitzordu bakarra, domeka arratsaldean herri kirol probak egingo dituzte-eta plazan. 17:30ean hasita, Aizkolarien Ligako Mikel Mindegia, Floren Nazabal eta Jose Mari Olasagasti aizkolariak izango dira nor baino nor gehiago. Eta aizkolariak hauspoa erre-kuperatzeko behar duten denboran, giroak behera egin ez dezan harri-jasotzaileek hartuko dute protagonismoa. Orduan egingo dute Arabako Txapel-dunek erakustaldia: Carlos Atxa eta Tigre de Salinas ibiliko dira hainbat pisu eta tamainatako harriak jasotzen.

dukiena  
dukiena  
dukiena  
dukiena

**dukiena**  
**J A T E T X E A**

Azkoaga auzoa. Tel.: 945 44 50 86  
ARAMAIO

dukiena  
dukiena  
dukiena  
dukiena

BESTELAKOAK

# San Martinetan, guztiendako aukera herriko bazterretan

Bertso saioa, meza, dantzaldiak, txarangak eta mojito jaia antolatu dituzte aurtengo jaietarako



**DANTZALDIK ETA TXARANGAK** Dantzarako musika soberan izango da. Barikuan plaza Imuntzo eta Belokiren trikiti doinuek jantziko dute, 23:30ean. Zapatuan, ordu berean, Gau Alai taldeak jardungo du; domekan Tahumak eta astelehenean Kaixok, haiek 22:30ean. Txarangak ere ia egunero: La Banda de Salinas, Sorginetxe eta Lanpernen Orroa.



**BERTSO SAIOA** Aramaion bada bertsolaririk eta baita bertsozalerik ere. Haiendako bertso saioa antolatu dute. Domekan izango da, herri kirol saioaren ostean, plazan. Maila handiko lau bertsolari kantuan; hiru bizkaitar eta arabar bat: Xabier Amuriza, Xabier Paya, Arkaitz Estiballes eta Zigor Enbeita.



**MEZA** Domekan eta astelehenean meza egongo da, 12:00etan. Eta domekako elizkizunak badu berezitasunik, Bizente Goikoetxea konpositore aramaioarraren *Meza Solem*-a abestuz esango baitute. Ondoren, Lagun Artean taldeko dantzarien saioa izango da.



**MOJITO FESTA** Kubako musika ez ezik, Kubako edaria ere dastatu ahal izango da txosnetan, beste urte batzuetan bezalaxe. Ondoren, disko jartzaile batek jardungo du. Eta musikaz eta edariz berotuta, 04:00etan galtzontzilo, kulero eta tanga lasterketa izango da.



CAJA LABORAL  
EUSKADIKO KUTXA

*Aramaiar guztioi, San Martin  
zoriontsuak opa dizkizuegu*

Bixente Goikoetxea 2. Tel.: 945 44 52 08/Faxa: 945 44 52 76